

Arrasate

P R E S S

1997ko
martxoak 7
354. zenb.



urte osoan!

IRITZIA: MIREN GARAI • KULTURA: IÑAKI RIVIERE

IKUSPEGIA: AMAIA JAUREGI-ARRABURU • 30 GALDERATAN: JOSE LUIS ARMENDIA



Arrasateko OSASUN GIDA

DENTISTAK

- ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ☎79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk..... ☎79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea..... ☎79 71 90
- GIPIZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis ☎79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1^o..... ☎79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B..... ☎77 12 63

DERMATOLOGIA

- ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1..... ☎79 72 16

FISIOTERAPEUTAK

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis .. ☎77 03 96

GINEKOLOGOAK

- GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta,17-Behea ☎79 20 18

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk..... ☎79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ☎79 48 77

MASAIARIAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk..... ☎77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai)..... ☎77 01 33

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎79 44 22

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6 ☎79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria)Juan Carlos Guerra, 1 ☎79 29 95

OSTEOPATIA

- NEREA BENGOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Errebuelta, 2 (Mobila) ☎989-58 66 89

PSIKOLOGOAK

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ☎79 48 77

PODOLOGOAK

- BARRUTIABENGOA URANGA Pablo Uranga, 6 ☎79 50 75

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea..... ☎79 20 18

REUMATOLOGIA-BIZKARREZUR TERAPIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1 ☎77 00 40

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56..... ☎79 44 22

Berriro ere martxoak 8

Martxoaren 8a. Ez dugu azterketa sakonik egingo. Gainbegiradatzu bat besterik ez. Goazen arloka:

- Emakumea eta boterea, politikoa zein ekonomikoa. Zenbat emakume parte hartzen du politikaren botere zentruetan: gobernu zentralean edota autonomikoan? eta alderdi politikoan zuzendaritza batzordeetan? Hasi kontatzen. Eta zer esan botere ekonomikoari buruz? Zenbat emakume Poltsan? Zenbat dira bankariak? Zenbat enpresa eta Holding-en Administrazio Kontseiluetan?

- Emakumea eta lan mundua. Nondik hasi: lan banaketan ematen den diskriminazioa, lan berdina eginez oraindik ere zenbait tokitan ematen den soldataren diskriminazioa, edota lan merkatuaren



Amaia Jauregi-Arraburu

“Emakumeen eskubideen aldeko lanak ez du bigarren mailakoa izan behar”

arabera ematen den manipulazioa? Zergatik diodan “manipulazioa”? Adibide bat: garai baten esne-hautsa eta biberioa amaren esnea bezain onak ziren, umea jaiotzeko bat umezaintzara bidaltzea oso zen komenigarria, umearentzat aberatsa eta gainera, ikerketen arabera, umezaintzara joaten ziren umeak

azkarragoak eta argiagoak ziren. Orain aldiz, askoz hobea omen da umearentzat amaren esnea, eta zenbat eta denbora gehiago pasatu amarekin (ez da ezer aipatzen aitari buruz) batez ere jaiotzearen lehenengo urteetan, orduan eta ume sanoagoa eta osasuntsuagoa. Ikasketak ere hobeto burutuko ditu. Bi ikuspegi hauek “ikerketa zientifikoak” ondorioak dira. Bata industriaren eskulanaren beharra zegoenean, bestea eskulana soberan dagoenean. Asma ezazue

zein egoerari dagokion bakoitza.

- Emakumea eta publizitatea. Egunero egunero hainbat publizitate sartzen digute alde guztietatik eta, ziur aski, ohitu egin gara, kantitatera, kalitatera eta emakumeak bertan duen tokira: kilo batzuk modu egokian banatuta gorputzean zehar, aurpegi polit bat eta inuxente itxura ematen dion irribarra. Ez dela hainbesteko? Gera zaitez unetxo batez begi kritikoei komunikabide, kaleetako mural etabarretan agertzen diren iragarkiei begira.

Horrela oso luze jarrai genezake: kultura, sexua: hainbat bortxaketa, tratu txar...; hezkuntza, komunikabideak, kontsumoa....

Euskal gizartean aurre egin behar zaion beste hainbat arazo izanda ere, emakumeen eskubideen aldeko lanak ez du bigarren mailakoa izan behar, eta denon parte hartzea eskatzen du, bide honetan ematen diren aurrerapausuak gizartearen, emakume zein gizonezkoen, onurako izango baitira azken finean.

Bitartean martxoaren 8a hemen dugunez ospa dezagun behar bezala. ■



ARKE
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otarola kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Behardor Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Alberto Garro, Kaitin Allende (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tel.: 79 02 26). **Disenua:** Golo Arana.

Kolaboratzaileak: Ander Etxebarria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Antola, Bixente Azkarate, Joxerra Aguirreeta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Inzar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Unibaren, Fidel Berezibar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Koppi, Jon Ozaeta, Birginita Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Legi-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Geritu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Golo Arana.



Arrasateko Udaleran laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

354. zenbaki honetan

1997ko martxoaren 7an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen ..	10/12	Kulturaren txokoa ..	26/27
Irakurlea idazle	6	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza	28/29
Inkesta.....	7	Asteko gaia	17/19	Soroik soro.....	31
Astearen erreposoa.....	9	Kirolak jokoan.....	20/23	Foto zaharra	34

Ikuspegia
Amaia Jauregi-Arraburu.....3

Euren ikuspuntutik
Miren Garai.....8

Aurrez aurre
Maite Monroy.....24/25

Hogeita hamar galderatan
Jose Luis Armendia.....30

Asteko gaia
ELIE Koop. E.
Enpresak euskalduntzeko kooperatiba berria.....17/19



Elhuyarrek eta Eskoriatzako Irakasle Eskolak osatzen dute ELIE Kooperatiba Elkarteak.

7

ostirala

■ ZINEA

Glimmer man Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ HITZALDIA

Gaia: Alzheimer gaisotasuna. Hizlaria: Pagola bikarioa. Arratsaldeko 7etan, San Andresko parrokiaren lokalean.

■ MANIFESTAZIOA

Arratsaldeko 6etan manifestazioa Seberon hasita, greba deialdiarekin bat eginez. Herri Batasunak antolatuta.

8

larunbata

■ ZINEA

Matilda Alai zineman arratsaldeko 5etan eta 7.30etan. *Fanatico* arratsaldeko 10etan.

■ EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Goizeko 9etan azoka Seberon. 7.30etan manifestazioa. 9.30etan Herri afaria Kataiden. Gaueko 10etan *Las lagartas* eta *Borrasca de vino* taldeen kontzertua Gaztetxean.

9

igandea

■ ZINEA

Matilda Alai zineman arratsaldeko 5etan eta 7.30etan. *Fanatico* gaueko 10etan.

■ ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Ibilbidea: Arrasate, Bergara, Soraluze, Maltzaga, Elgoibar, Altzola eta Arrasate, 52 kilometro. Irteera goizeko 10etan Monterrondik.

■ 10. KORRIKA

Goizean zehar postulazioa egingo da Herriko kaleetan. Arratsaldeko 7etatik aurrera Irati, Etxerat eta Jai-zale tabernetan *Korrika 10* bideoaren emanaldia

■ EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Arratsaldeko 6.30etan mahai-ingurua Gaztetxean. Gaia: emakumeen egoera.

10

astelehena

■ ZINEA

Fanatico Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ EKINen HITZALDIA

Gaia: Emakumea herri arabiarretan. Hizlariak: Oihane Oliveri eta Elena Biain (Amnesty International-eko partaideak). Arratsaldeko 7etan San Andresko auzo-alkatetzan.

■ EZKONTZAURREKO TOPAKETAK

Ezkontzaurreko topaketen hasiera. Tokia: Arrasateko Abadetxean arratsaldeko 8.30etatik 10.30etara. Topaketek ostirala arte iraungo dute.

12

asteazkena

■ KITARRA KONZERTUA

San Frantzisko elizan kitarra kontzertua arratsaldeko 7.30etan. Arrasate Musikalek antolatuta.

13

osteguna

■ ZINEA

El perro del hortelano Alai zineman arratsaldeko 7etan eta 9.30etan

■ ZINE KLUBA

Diario de un rebelde Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera: 400 pta. eta gazte txartelarekin 350 pta.

■ EKINen HITZALDIA

Gaia: Landareak beste ikuspegi batetik. Hizlaria: Jakoba Rekondo. Bi emanaldi; arratsaldeko 3.30etan AEDko lokalean eta 6etan Gesalibarko auzo-lokalean. Antolatzaileak Emakume Saira eta Ekin elkarte.

11

asteartea

■ ZINEA

Fanatico Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ ZUTIKEN BIDEO EMANALDIA

Alternatiba Demokratikoaren bideo emanaldia Udaltxeko Pleno Aretoan arratsaldeko 7etan. Zutikek antolatuta.

■ TRIALSIN TXAPELKETA UDALAN

Martxoaren 16rako
Trialsin txapelketa
antolatu da Udalan. Froga
goizeko 10.30etan hasiko
da.

■ EZKONTZAURREKO TOPAKETAK

Martxoaren 10tik 14ra
arte Ezkontzaurreko
topaketak Arrasateko
Abadetxean arratsaldeko
8.30etatik 9.30etara.
Gaiak: bikotearen helduta-
suna, maitasuna eta
elkarkomunikazioa,
sexualitatea, erantzunk-
izunez aita-ama izatea eta
ezkontza Sakramentua.

■ 10. KORRIKA

Korrikaren hasiera
Arantzazun izango da
martxoaren 14an. Bertara
joateko autobusa antolatu
da. Prezioa: 500 pta. eta
izena emateko deitu 77
03 69 zenbakira. Autobu-
sa arratsaldeko 3etan
irtengo da eta kontuan
hartu 3.30etan Arantza-
zuko bidea itxiko dutela.

■ IRRATI ETA EUSKAL DANTZEN IKASTAROA

Irrati tailerra: a) irrati
kontrola apirilaren batetik
ekainaren 17a arte
asteartetan arratsaldeko
7etatik 9.15etara. b)
Irratsaioak egitea apirila-
ren 2tik ekainaren 18a
arte asteazkenetan
7etatik 9.15etara.
Izenematea 3.000 pta.,
Ikasle eta langabetuen-
tzat 1.500 pta. Euskal
dantzen ikastaroa martxo-
aren 14tik San Juanak
arte. Ostiraletan arratsal-
deko 7etatik 8.30etara.
Matrikula: 1.000 pta.
Gazte bulegoan eman
behar da izena edo 77 00
65 zenbakira deitu.

■ TAILA IKASTAROA

Hasierako maila
martxoaren 17tik aurrera
Tailaginen elkarteak,
Erguin kalea 19, beheak.
Izena emateko deitu
gualdean bi zenbaki
hauetara; 79 40 79 (Felix)
eta 79 67 64 (Imanol).
Antolatzailerak Arrasateko
Tailaginen elkartea.

■ PINTURA ERAKUSKETA

Iñaki Rivieren pintura
erakusketa Harresi
aretoan martxoaren 23ra
arte. Ordutegia: egunero
6etatik 8ak arte. Larun-
bat eta jaiegunetan
12etatik 2ak arte eta
6etatik 8ak arte.

■ BESAIDEREN MENDI IRTEERA

Martxoaren 16rako
Besaidereko Lizarraga eta
Irantzunera mendi irteera
antolatu du. Irteera
goizeko 7etan Garibaitik.
Izena ematea martxoaren
11, 12 eta 13an arratsal-
deko 7.30etatik 8.30eta-
ra Besaidereko egoitzan.

■ AEROBITONA OÑATIN

Beti Ona gimnasioak
antolatuta Aerobiton
txapelketa egingo da
martxoaren 15ean Oñatiko
Zubikoa kiroldegian.
Txapelketan hartu nahi
izanez gero, 500 pezeta
ordaindu behar da eta
ondorengo kontu korronte-
an sartu (Kutxa
2101005758012188437).



MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIORTEKO EGUNEAN AZOKA ETA MANIFESTAZIOA

Martxoaren 8an, goizeko 9etatik aurrera, Azoka Seberon. Arrasateko emakume baserritarrek barazkiak, ogia eta artisau lanak jarriko dituzte salgai. Horrez gain, 7.30etan manifestazioa egingo da, eta gaueko 9.30etan afaria Kataide jatetxean.

MARTXOAK 8 EGITARAUA

▶ Martxoak 8 Zapatua

Goizeko 9etatik
aurrera **Azoka**
Seberon.
Gaueko 9,30tan **herri**
afaria Kataiden,
Txartel salmenta ;
EKIN; Emakume
Asanbladan, Bionan,
Garibai Etxean;
Famili eta Gizarte
Hezkuntzarako
Zentroan.

▶ Martxoak 9 Domeka

Arratsaldeko
6,30etan
Mahaingurua
Gaztetxean:
Emakumeon
egoera.

▶ Martxoak 15 Zapatua

7,30etan Seberon

Bertso-saioa:

Ainhua
Agirreazaldegia
Maialen Lujanbio
Andoni Egaña
Unai Iturriaga
Gai-jartzailea:
Arantzazu Loidi.

▶ Martxoak 21 Eguakotza

Gaueko 10,30etan
Amaia antzokian
antzerkia: Molestias
Clownicas.



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 7

- Gaueko 10ak arte: Irizar. Erguin.
- Gauez: Estella. Bergara.

Larunbata 8

- Gaueko 10ak arte: Amezuza. Santamaina.
- Gauez: Mozos. Bergara.

Igandea 9

- Gaueko 10ak arte: Ruiz. Maala.
- Gauez: Mozos. Bergara.

Astelehena 10

- Gaueko 10ak arte: Morales. San Andres.
- Gauez: Camacho. Bergara.

Asteartea 11

- Gaueko 10ak arte: Azkoaga. Ferrerias.
- Gauez: Puy. Bergara.

Asteazkena 12

- Gaueko 10ak arte: Español. Iturriotz.
- Gauez: Guellar. Bergara.

Osteguna 13

- Gaueko 10ak arte: Corcuera. Musakola.
- Gauez: Estella. Bergara.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

- Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
- Igualatorria 79 05 00
- Santa Agedako Ospitalea
- (gizonak) 79 39 00
- (emakumeak) 79 44 11
- Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze Gorria

- Bergara 76 55 76

DYA

- Antzuola 78 71 57

Anbulatorioak

- Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
- Txanda hartzeko: medikuntza
- orokorra eta pediatria 77 03 46
- Espesialitateak 77 05 78
- 77 12 64
- Oñati 78 08 52
- Eskoriatza 79 98 58
- Aretxabaleta 79 74 58
- Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak

- Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa

- Oñati 78 04 11
- Bergara 76 14 69
- Arrasate 79 14 39
- Aretxabaleta 79 10 52
- Eskoriatza 088

Ertzaintza

- Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak

- Udal taldea 79 09 00
- Udal taldeko suhiltzaile burua 79 20 72
- Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

- Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
- Elektrizitatea (Iberduero) 12 01 62
- Gasa 900 40 05 23
- 79 78 44
- 79 76 78

Garraioak

- Taxiak 79 12 22
- PESA 79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak

- Iturbide Egoitza 79 72 11
- Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa

- KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburutegia

- Monterron 77 01 05

Irratia

- Arrasate Irratia 79 58 77

LAB SINDIKATOAREN ERANTZUNA JOSE RAMON LANDA ETA SIMON MARTINEZI

Ezberdintasunak ezberdintasun, langile behartsuen eskubideak eta soldatak defendatzeko orduan ez dugu uste LAB sindikatuak zuen sindikatuak baino ahalegin gutxiago egiten duenik. Beste gauza bat da, helburu hauek lortzeko zer bide hartzen dugun bakoitzak.

Etkez-etxeko langileei dagokionez, zuek hartutako bidea antzua izan zitekeela iruditu zitzaigun, eta guk beste bide batetik joatea erabaki genuen, bide hau eraginkorra izatea suertatu delarik gainera. Esan beharra dago ere, ez dugula ulertzen zuen haserrea guk beste bide bat hartzea erabaki dugulako, hau gauza arrunta denean, gure ustetan, ezberdintasunak egon daudenean.

Zuen idatzian gauza larriak egitea leporatzen diguzue; besteak beste, langileek Goiz Argiren baldintzak onartzera behartu izana. Hori ez da horrela izan, baina hau gezurtatzea edo egiaztatzea langileei dagokien zerbait dela uste dugu.

Bukatzeko; joan zen ostiralean prentsaurrekoa eman genuen gatazka honetan LABeko jarrera zein izan den azaltzeko, beraz hemendik aurrera bakoitzak atera ditzala nahi dituen ondorioak.

LAB

MARTXOAK 8, EMAKUME LANGILEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Mugatuta etxean, emakume asko eta asko hor gaude ekonomikoki eta afektiboki gizonen menpean. Ez daukagu aukerarik gure bizitza gure eskuetan aurrera eramateko. Hankatik... leporaino loturik gaude. Ez daukagu aukerarik gure burua autodeterminatzeko, gutaz arduratzeko eta gure ekonomiaz guk nahi duguna egiteko.

Lana berriz ere definitu behar da. Fabriketako lan ordaindua eta emakumeek etxean egiten duten lan ez ordaindua kontuan hartu behar da. Kontabilizatu egin behar da, eta emakumeendako ziurtasun sozial propioa eta jubilazio propioa exigitu behar dira.

Ettxeko eginbeharrak berriz ere banatu behar dira familiako partaide guztien artean, guztiondako denbora askatzeko.

Denok dugu bizia aurrera eramateko, ordaindutako lan bat edukitzeko eskubidea. Gaur egun langabezia estrukturala denez, ordaindutako lanik ez daukagun emakume eta gizonendako soldata soziala exigitu behar dugu.

Sexuaren arabera diskriminatzen ez duen lan antolamendu bat exigitu behar da.

Kulturari iraultza burutu behar da, emakumeok pertsona gisa trata gaitzaten.

Heldu da gure ordua, anto-

latzeko, gure autoestimaren eta gure autonomiaren oinarriak ezartzeko. Gure independentzia ekonomikoa eta afektiboa bultzatu behar dugu.

Eta... euskal preso guztiei, eta bake proposamena plazaratzeagatik, espetxean zaudeten mahai nazionaleko kide guztiei, gure gogorapenik beroenak. Denon artean, Euskal Herri berria eraikiko dugu, emakume eta gizonen partehartze eta gozamen bultzatzen duena.

Martxoak 8, manifa 7.30etan Sebero Altuben... denok dugu elkarren beharra, zure zain gaude!

Egizan (Arrasate)

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa
79 42 22

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiral
Setatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

Emakumea izateagatik sekula sentitu zara diskriminatuta?



Margarita Ortiz
(50 urte)
Etxekoandrea

Sekula ez naiz diskriminatuta sentitu, ez etxean eta ezta kalean ere.



Juani Garcia
(25 urte)
Etxekoandrea

Ez naiz sekula sentitu, ez etxean eta ezta lan egin dudanean ere. Emakumearen eguna ospatzea bestalde, ondo iruditzen zait.



Ilda Madinabeitia
(22 urte)
Langilea

Diskriminatuta eta alden-duta ikasle urteetan sentitu nintzen. Harrez gero, ez dut nire burua diskriminatuta sentitu.



Pilar Moro
(50 urte)
Etxekoandrea

Emakumearen eguna ospatzea ondo iruditzen zait oraindik aldarrikatzeko gauzak egon badaudelako, hala ere nik neuk nire burua ez dut sekula diskriminatuta sentitu.



Maria Angeles Ugarte
(38 urte)
Ikaslea

Ez, ez naiz sentitu. Bada- kit zer eginbehar ditudan eta horiek betetzen saiatzen naiz. Bestalde Emakumearen eguna edo Aitaren eguneko bezalako ospakizunak ez zaizkit gustatzen.



Belen Goñi
(33 urte)
Langilea

Nik ez dut sentitu, lanean emakumeak eta gizonak ari gara, berdin irabazten dugu eta lanetik kanpo ere ez dut arazorik izan. Emakumearen eguna ospatzea ondo ikusten dut oraindik emakume asko diskriminatuta dagoelako.



Maria Jesus Viamonte
(53 urte)
Etxekoandrea

Ni neu emakumea izateagatik ez naiz sekula diskriminatuta sentitu baina jakin bada- kit diskriminazio egoeran emakume asko dagoela, beraz, emakumearen eguna ospatzea ondo iruditzen zait.



Marian Perurena
(39 urte)
Etxekoandrea

Batez ere gazteagoa nintzenez, kalera irtetzen hasi eta mutilekin harremanak izaten genituenean. Emakumeak gizonaren jokaera hartzea ez zegoen ondo ikusita. Lanean neu ez, baina ezagutu izan ditut horrelako egoerak.



TOMAS ARRAINDEGIA

Olarte, 3 • ARRASATE • Tel.: 77 16 79

GOIZ ETA
ARRATSALDEZ
ZABALIK!

USTEAK USTE

Kadukatutakoa egunean jarritz

Hilabete batzuk zain egon eta gero, iritsi zitzaidan azkenean nortasun agiria berrizteko txanda. Nuen zenbakiaren arabera, 10etan joan eta asko jota 11etarako trami-tea bukatuta edukitzea pentsatzen nuen. Polizi-jendea ezagututa, 10.30etarako agertu nintzen Udaletxera.

Ailegatu eta galdetu nion albokoari zein zenbakitan zihoan kontua. Erantzuna entzunda, zorionak eman nizkion neure buruari egunkaria besapean eramateagatik. Itxura denez, berandu iritsi ziren egun horretan, gehiengutan bezala. Pazientzia. Han nengoela, konturatu nintzen zenbaki baten ondoren, bestea zihoala, baina tartean jendea. Esan zidatenez, aurreko egun batean inori ezereen berri eman barik, ez agertzea erabaki zuten, horregatik jendea sartu beharra. Itxura batean, ganoragabekeria horrekin hurrengorako jendeak izenik ez ematea lortu gura dute.

Handik irten eta eskaileretan lagun batekin egin nuen topo. Berari utzi nion egunkaria. Beraz badakizue ondorengo asteetan nola jokatu.

Beñardo Kortabarria



Arrasateko Trikitixa Eskolaren batzar orokorra

Miren Garai

Urtero bezala, aurten ere Arrasateko trikitixa eskolaren batzar orokorra egin zen pasa den ostiralean Monterron Kultur Etxean. Bertan 96-97 ikasturtean eskolan eman diren gertaeren berri eman zuten Josu Iria lehendakariak eta Maixa trikitixa irakasleak. Ohi denez, Juntako partaideen aldaketaren berri emanez ekin zitzaion Batzarrari.

Aurten klaseak ematera Ospital Zaharrera joan behar izan dugula eta horren berri ere eman behar izan genuen. Aldaketa behin behinekotasunez egin dugu, baina hala ere egoitza egokitzeko kabinarezi batzuk jarri ditugu. Izan ere, Ospital Zaharrak ez ditu soinu eta pandero lanetarako aparteko baldintzarik eskaintzen. Momentuz hiru gela erabiltzen ari gara, baina aurrera begira kaperan ere (lehengo ATBko platoon), zerbait egin beharko dugu.

Egoitza kontuak alde batera, arin arin diru kontuei erreparatu beharko diegu. Izan ere, derrigorra izaten da taldeko partaideei horren berri eskaintzea. Diru kontuak argiago gera daitezen, bi puntutan labur-

bilduko ditugu.

- Urteko 125.000 pta.ko galerak daude eskolan. Arazo honi aurre egiteko hiru hilabeteko panderoako kuota 4.500 pta.tik 5.000 pta.ra igoztearabaki zen; hau 97-98 ikasturtean burutuko delarik.

- Eskertzekoak dira, Udaletxe, Euskadiko Kutxa eta Kutxaren dirulaguntzak.

Egindakoa orain artean; ondorengo lerroetan, berriz, aurten egin asmo duguna dihoakizue.

Martxoaren 16an Pasaian Euskadiko Trikitilari Eguna egingo da. Arrasateko trikitilariok, beste askok bezala, bertan egongo gara eta musika artean egun ederra pasatzeko aukera izatea espero dugu. Gurekin etortzea erabakiko bazenute, jakin ezazu horretarako parada ezin-

hobea izango duzuela, nahi duzuen guztiontzat autobusa jartzeko asmotan gabiltza eta.

Denboran aurrera eginda maiatzarekin egingo dugu topo, eta hor urteroko zita Arrasateko Trikitilariontzat, giro ezinhobean geure eguna ospatuko dugulako.

Bestalde, aurten Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen bazkide egiteko aukera ere luzatu nahi genuke.

Eta asmoen tarteari bukatu emateko, ziur ziurra ez bada ere, adierazi uztailean ikastaro intentsibo bat egin gura dugula, eta irakasle lanerako trikitilari famaturen bat ekarri nahi genukeela Arrasatera (Tapia, Junkera...). Ikastaro honetan, jakina, maila jakin bat duten ikasleek izango lukete parte hartzeko aukera.

Azkenik esan dezakegu, Batzarra bukatu eta gero, Alkartu Elkartearen afaria egin genuela. Bertan 46 lagun inguru bildu ginen eta giro ezin hobean ibili ginen. Giro honetan sartu nahi baduzu, jakin ateak zabalik dituzula. ■

Miren Garai, Trikitixa batzordeko partaidea da.

**“
Uztailean ikastaro
intentsibo bat egin gura
dugu, trikitilari
ospetsuren batekin
”**

astea bi hitzetan

■ Txomin Iturberi
10. omenaldia

Urtero moduan Txomin Iturbe omentzeko jaialdia egin zen joan den ostiralean.

Iragarri bezala txalartariek, bertsoariak eta Guk taldeak parte hartu zuten jaialdian. Ekintza politikoa Xabier Zubizarretaren eta Karmelo Landaren esku joan zen. Karmelo Landak, Mahai Nazionalerako kideak, telefono bidez hitzegiz zuen Genevatik (Suitzatik). Landak esan zuenez, Euskal Herria herri txiki bat izan arren toki guztietara heltzen da, eta E.Haren etorkizuna ezin da gartzelan sartu. Une horretan burua estalita ziren lagun batzuk irten zuten eszenatokira, eta "Presoak ez dira damutzen ezta gu ere" zioen pankarta zabaldu zuten.

■ Masterraren bukaera

Eskola Politeknikoak antolatutako Produzio Zuzendaritzaren Master Programaren amaiera ekitaldia egin zen joan den ostiralean. Aurtengoa seigarren edizioa izan da, eta 20 teknikariak eta zuzendarik parte hartu dute. Partehartzaileek industri proiektu bana aurkeztu dute masterraren bukeran. Ekitaldi horretan Ignacio Lakunzak esan zuen, Mondragon Unibertsitateari datorren ikasturtean hasiera emango zaiola, eta lau urte barru unibertsitateak 4.000 ikasle izango dituela.

■ Arrasateko INEM zabaldu

Astelehenean zabaldu zen INEM erakundeak Arrasaten duen bulegoa. Jende ugari hurbildu zen lehenengo egunean, eta horregatik,

seguruenik langabetuen kopuruak gora egingo du. Une honetan, bestalde, 776 langabetu daude Arrasaten INEMeko zerrenden arabera. Horietatik 294 gizonzakoak dira, eta 482 emakumezkoak. Eraikina Udalarenaenez, alokairuagatik urtean milioi bat eta erdi pezeta ordainduko dio INEMeko Udalarari.

■ Martxoaren 8a aurkeztu

Komunikabideen aurrean egindako agerraldian, Martxoaren 8aren inguruan antolatutako ekintzak aurkeztu zituzten herriko emakume taldeek joan den astean. Aurten lehenengo aldiz, programazio bateratua aurkeztu dute emakumeen inguruko talde guztiek. Milioi bat pezeta kostatu da aurtengo programazioa antolatzea.

“Udal Euskaltegiak antolatu duen euskalkia lantzeko ikastaroak ez luke orain artean egindakoa zalantzan jarri nahi: idatzizko euskara estandarreko arauak finkaturik daude eta kitto. Ez genuke gaizki ulertuak izan nahi, euskara batua ezinbesteko tresnatzat baitauegu.



Orain, gure herrian urteetako jardunak honako hau erakutsi digu: bat, euskarazko ahozko harreman gehienak, gure bailarako berbetan egiten direla, nahiz eta pertsona alfabetatuak edo euskaraz heziak izan. Bi, euskaldun berriek, bertakoekin berba egiteko, geure berbetaren ezagupen ezaz hitz egiten dute.

Beraz, euskaldun berri-zahar zubia txikiago izan dadin eta hain geurea dugun berbeta, batik bat funtzio lokalean ematen denean (etxean, lagunartean, ATBn, Arrasate Irratian...) modu zuzen eta aberatsean erabiltzeko antolatu dugu ikastaro hau”.

JOXERRA AGIRREURRETA.

Argia.
1997-2-28.



“TXIRI”RI OMENALDI BEROA

Joan den zapatuan Omenaldia egin zitzaion Haritz Etxeberria, “Txiri”ri. Goizean Haritzen erraustak aireratu ziren, eta ondoren bazkaria izan zen. Ehun lagunetik gora joan ziren bazkarira. Iluntzean, berriz, herriko talde batzuk kontzertua eskaini zuten Gaztetxean.

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta
Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA AMNIOZENTESIA ANTISORKUNTZA	MENOPAUSIA BASEKTOMIA BULAR PATOLOGIA
--	---

SAN MARTIN OSASUNDEGIA
Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

Lore
Lurrindegia
Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50

Zutik-en eskutik **Alternatiba Demokratikoaren bideoa ikusgai**

Zutik alderdiaren ekimenez, datorren asteartean, martxoaren 11n, ETArekin Alternatiba Demokratikoa zer den azaltzen duen bideoa izango da ikusgai Udaletxean, arratsaldeko 7etan. Arrasaten ez ezik, Euskal Herriko beste 20 herritan ikusgai izango da bideoa ordu eta egun berean.

Zutik-en esanetan, edonork izan behar du ideiak plazaratzeko eskubidea. Horregatik, Zutik alderdiak uste du Herri Batasunako Mahai Nazional kideen espetxeratzea adierazpen askatasunaren aurka doala.

Jakina denez, bideoa debekatuta dago eta azkenaldian bertan behera geratu dira bideoa ikusteko saiakera asko. HBko Mahai Nazionaleko kidea, berriz, espetxeratu egin dituzte bideoa zabaltzeagatik.

Jaiotzak

- Danel Uribesalgo Abasolo. Otsailaren 20an.
- Maite Bilbao Ugarte. 22an.
- Maria Gerrikabeitia Garai. 26an.

Ezkontzak

- Carlos Duarte Diaz da Silva eta Maria Antonia Rodrigues Fernandes. Otsailaren 26an. Zibilez.

Hildakoak

- Ceferina Palomar Crespo. Otsailaren 22an. 83 urte.
- Justo Iturbe Juaristi. 25ean. 81 urte.

EHko gatazkaren inguruan duten iritzia azaldu sindikatuek

E.Hko gatazkari irtenbidea aurkitzeko zein bide hartu eztabaidatu zuten asteazkenean ELA, LAB eta CCOO sindikatuek Monterronen. Ekintza horretan parte hartzeko gonbitea herri guztiari luzatu zitzaionez, bertara hurbildutako entzuleek solasaldian parte hartzeko aukera izan zuten. Hogeitabost entzule inguru bildu ziren Monterronen.

ELAren iritzia Xabier Larrañagak eman zuen. Larrañagak esan zuenez, estatutua bide itxi batean dago baina borroka armatuaren bidez ez da ezer lortu. ELAko hizlariaren ustez, indar abertzaleek gauza jakinetan akordioa lortzen ahalegindu behar dute eta era horretan estatutua gaitutuko litzateke.

LABen izenean J.L. Loidik hitz egin zuen eta E.H. bizi izaten ari den gatazka odoltsuan erantzunkizuna denok dugula adierazi zuen. LABeko kideak, orain arte aurkeztu den bake proposamen bakarrak, Alternatiba Demokratikoak, erantzunik



Lehenengo aldia da sindikatuen aldetik horrelako ekimeak egiten dela.

ez duela jaso salatu zuen. Ondoren, Alternatiba Demokratikoaren edukia azaldu zuen autodeterminazioaren defentsa egin. Bukatzeko, ezker sindikalaren izenean J.R. Garaik hartu zuen hitza. Garairen arabera, E.H.ak arazo politikoa

bizi du eta beraz, irtenbidea politikoa izan beharko da. Ezker sindikaleko hizlariak esan zuenez, autodeterminazio eskubidea onartu behar zaio E.Hari, baina eskubide hori nahi duenean eta beharrezkoa denean erabiltzeko aukera izanez.

HBko zinegotzien itxialdia Udaletxean "Demokraziaren alde"

Arrasateko HBko sei zinegotziek itxialdia egin behar zuten atzo udaletxean. Itxialdia ostegun gauean hasi eta ostiral goizean bukatu behar zen.

Ekimen horren berri emateko HBko zinegotziek kalerratu zuten oharrean esaten da

itxialdiaren helburuak demokrazioaren alde azaltzea eta bizi dugun egoera salatzea direla. HBko zinegotzien ustez, E.Han bizi dugun gatazka politikoa elkarriketa eta negoziazioaren bidetik konpondu badaiteke ere, Espainiako agintariek okerreko

bidea hartu eta ondorioz, errepresioa indartzen ari da. Mahai Nazionaleko kideen espetxerari buruz idatziak dio, Alternatiba Demokratikoa dela gaur egun dagoen bake proposamen bakarra eta, bakea lortzeko HBk egin dituen ahaleginek kartzela jaso dutela saritzat.

Aurrera doa emakumeei eta gizonei aukera berdinak eskaintzeko plana

Udalaren enkarguz, bulego soziologiko bat Ekintza Positiborako Plangintza egiten ari da Arrasaten urriaz geroztik. Plan horren helburua, emakumeen eta gizonezkoen artean aukera berdintasuna bultzatzea izango da, hau da, udalaren arlo guztietan aukera berdinak ematea bai batzueri zein besteei. Esaterako, kultur arloan emakumeendako ekintzak antolatzeta edo emakumeek egindako gauza ezagutzera ematea bultzatuko luke planak.

Plangintza maiatzerako bukatuta egongo dela uste da eta behin eskuartean izanda, plenora eramango da alderdi



Emakumezkoek eta gizonezkoek aukera berdinak ematea da helburua.

politikoez plana sinatu dezaten. Era horretan, datozen lau

urteetan plangintzan jasotzen dena aurrera eramateko atxi-

kimendua adieraziko dute alderdiek.

Maite Barreña, Emakume Saileko teknikariak garbi utzi nahi izan du plangintza gizarte guztiari zuzenduta egongo dela. "Helburua ez da gizonezkoak baztertzea, baizik eta berdintasunaren alde gizartean aldaketa bultzatzea. Horregatik, egoera aldatzeko arduraz ez da Udalarena bakarrik izango, herri guztia inplikatu beharko da".

Ekintza Positiborako Plangintzak Ermuan eta Eibarren ari dira aurrera eramaten, eta Bilbon eta Donostian egunotan dira onartzeak.

Aurrekontuen plenoa datorren astean egingo da

Martxoaren 14an, datorren ostiralean, egingo da 97ko aurrekontuak onartu eta beste hainbat gai aztertzeko ple-

noa. Astelehenean, berriaz, alderdi politikoez bilera egingo dute aurrekontuen gaia diktaminatzeko.

Gaztetxeari 200.000 pezeta konponketak egiteko

Udalak 200.000 pezetako dirulaguntza luzatuko du Gaztetxean konponketa batzuk egin daitezkeen. Egoera txarrean dau-

denez, eszenatokiaren goiko alde eta barraren atzealdea izango dira konponduko direnak.

Barceló Bidaiak

TENERIFE

Martxoak 25 apirilak 1 (8 egun / 7 gau)
A.H. GREEN PARK *** (Tenerife hegoaldea)
Ostatu osoa + ardoa/ura
57.900 pta.

Martxoaren 27tik 31ra. (5 egun / 4 gau)
GARNDENIA PARK ** (Puerto Cruz)
Ostatu osoa
65.900 pta.

Martxoaren 31tik apirilaren 6ra. (7 egun / 6 gau)
71.600 pta.

TUNEZ

Martxoaren 26tik 31ra (6 egun / 5 gau)
SAADIA HOTELA *** (Monastir)
ostatua + gozaria
61.000 pta.

Martxoaren 31tik apirilaren 6ra (7 egun / 6 gau)
ostatua
66.000 pta.

Maalako Errabala, 33 behea
ARRASATE • Tel.: 79 70 11

ASTE
SANTUA
97

ELA, CCOO, UGT eta ESKk subrogazioaren aldeko apostua egiten jarraitzen dute

Astean ezagutzera eman da Udalaren zerbitzu juridikoek etxez-etxeke zerbitzuaren inguruan prestatuko txostena, eta horren arabera, Goiz Argiri emandako adjudikazioa ezin da atzera bota. Urtarrilean egindako plenoan onartu zen zerbitzuaren ardura Goiz Argiri ematea, baina sindikatuek erreklamazioa aurkeztu zuten Udalean erabaki hori indargabe uzteko eskatuz. Udaleko idazkariaren txostenean jasotzen denez, legaltasun aldetik hutsuneak egoten badira gera daiteke bertan behera adjudikazioa, baina lege aldetik hutsu giterik ez dago.

ELA, CCOO, UGT eta

ESK sindikatuek, berriz, uste dute lehendik lanean ibilitakoei subrogazio eskubidea onartu egin behar zaiela, eta horregatik, eskubide horren defentsa egiten duen txostena prestatuko dute astelehenerako. Ondoren, alderdi politikoei emango diete horiek auziaren inguruan euren jarrera defini dezaten.

Joan den astean, bestalde, LAB sindikatuak jakinarazi zuen Bazainen lanean ibilitako 14 emakume Goiz Argin lanean hasiko direla jakinarazteko. LABen esanetan, subrogazioaren bidetik emaitzarik lortzea zaila ikusten dutelako erabaki dute beste bide batetik jotzea.



Joan den ostiralean prentsaurrekoa eman zuen LAB sindikatuak.

Butanoa dela eta, arreta eskatu herritarrei

Zigorrola auzoan enpresa bat butanoaren instalakuntza aztertzeko lanetan hasi dela eta, kontuan hartzeko aholku batzuk luzatu ditu Kontsumitzaileen Bulegoak.

Lehenik eta behin gogorarazi du, butanoaren kasuan instalakuntzaren azterketa bost urtean behin egin behar dela, eta azterketa egitera datorren enpresari aurrez aurrekontua

idatziz ematea eskatu behar zaiola. Bestalde, behin azterketa egindakoan enpresak ziurtagiria ematera behartuta dagoela jakinarazi du Kontsumitzaileen Bulegoak.

Maalako obrak

"Construcciones Sukia"ri adjudikatu dio Udalak Maalako Errabaleko obrak. 40 milioi eta erdi kostako dira Aste Santua bukatu eta gero hasiko diren obrak.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

EZAGUTU FIAT TURBO DIESEL GAMA BERRIA...



Punto TD S
1.510.000 ptatik.

Bravo TD 75 SX
2.018.000 ptatik.

Brava TD 75 S
1.923.000 ptatik.

MareoTD 75 SX
2.439.000 ptatik.

Mareo Weekend TD 100 ELX
2.865.000 ptatik.

Ulysse 1.9 TD S
3.546.000 ptatik.

ZURE NEURRIKO

FIAT
FINANTZAKETA

IRTENBIDEAK

7,5%
TAE

4 urterako finantzaketan
%20ko sarrera.

Fiat finantzaketa
eskaintza, Fiat Turbo
Diesel gama guztian,
1997-3-31 arte baliagarria.

PASIOAK MUGITZEN GAITU. **FIAT**

... ETA ALFA ROMEO TWIN SPARK MOTORE BERRIAK.



1.860.000 ptatik. aurrera.

	Zilindrada cm ³	Potentzia (CV-CEE)	Abiadura max. (Km/o)	0-100 km/o (Segundoak)
T. Spark 1.4 16 V	1370	103	187	11,9
T. Spark 1.6 16 V	1598	120	197	10,2
T. Spark 1.8 16 V	1747	140	207	9,2
T. Spark 2.0 ti 16 V	1970	150	215	8,5
2.0 TD	1929	90	179	12,5

Matrikulazioa ez dago barne.


KANPAZAR FIAT

Alfa Romeo

ZERBITZU OFIZIALA

TAILERRA: Bizkaia etorbidea, z/g • Tel.: 79 41 98 • Faxe: 77 12 84 • ARRASATE

ERAKUSKETA: Araba etorbidea, 4 • Tel.: 79 77 66 • ARRASATE



POZIK ETA HARRO

Horrelaxe zeuden AUKEA sarien irabazleak joan zen asteazkenean. Xabier Mentxaka korrikalaria, ATE txirrindulari elkarte eta Matilde Garai korrikalari ohiak izango dute aurten herriko kirolari onenen titulua eramateko ohorea. Ez da ohore txarra!

OHOREZKO SAKEA



Ez dira Ronaldo eta Ronaldina baina argazkiko bi protagonistek zein ikusi handia dute futbolarekin. Rosi Oduy eta Roman Lopez Mondra emakume taldearen sortzaileak izan ziren. Duela 10 urte sortutako proiektuak gaur egun estatu mailan jokatzeko du. Rosik eta Roman beraz, badute pozik egoteko arrazoirik eta horrela azaldu zuten Mondra elkarteak domekan egin zieten omenez.

ZENBAT OSTIKO BALOIARI!

Batek daki emakume hauek zenbat ostiko eman dioten baloiari eta orain ere egokituz gero, ez lirateke txarto moldatuko futbol zelai batean. Mondra emakume taldeko jokalariek omenaldia jaso zuten domekan Atxabalpen. Berrito ere jokalariek garaiak gogoratu eta lagunaren artean egoteko aukera ezin hobea!





51KOAK PRESENTE!

Egunpasa ederra egin zuten 1951n soldaduskara joan ziren gizon hauek joan den zapatuan. Lehenengo meza entzun parrokian, eta eguerdian

bazkaltzera joan ziren. Kontu ugari ibiliko zuten bazkarian, baina seguruenik ez ziren faltako soldadutza garai-ko istorio gazi-gozoek.

IZENAK

Trikitixa Eskolaren

Batzar Orokorra burutu zen joan den astean. Beste gai batzuren artean, Zuzendaritza Batzorde berriaren hautaketa egin zen bertan. Aukeratuak honako hauek: Josu Iria, Juanjo Foronda, Miren Garai, Amaia Jauregi eta Eugenio Iturriotz.

DATA

1533-3-9

Esteban Garibai eta Zamalloa jaiotzen Arrasaten, gerora historiagile eta erregearen kronikaria izango zen gizona. Arrasateko alkate izan zen 1568 eta 1569 urteetan. 1575. urtean erregearen liburuzain izendatu zuen Felipe II.ak, eta 1592an Espainiako erregearen kronikari izendatu zuten. Garibaik fama handia izan zuen bere sasoiaren, baina XVII. mendetik aurrera ez zuten aintzakotzat hartu, fantasia-gehiagiz jotzen zuela esaten zen eta. Euskal Herriko Erdi Aroaren bukaerako historia oso ondo ezagutzen zuten, nahiz eta garaiak agintzen zuten bezala, Gaztelako erregearen alde egiten saiatu etengabe. Ez da Garibaik euskaraz eginiko testurik ezagutzen, baina bizkaieraz idatzitako esaera zaharren bilduma bat egin zuten. Madrilen hil zen 1599. urtean.



FINOAK EDATEN FIN-FIN

Horrelaxe, fin-fin, ibili ziren Al-andalus elkartekoak joan den astebukaeran Andaluzia eguna ospatu zutela eta. Ostiralean, gainera, Luis Fernandez, Athleticeko entrenatzailea, Euskadiko urte-

ko andaluziar izendatu zuten, baina derbiarekin ezin etorri eta saria beranduago jasoko duela agindu du Luixek. Nork daki, beharbada hobeto joango zitzaion derbia fino batzuk edanda!

EUSKALDUNON

1997

Gida


Elektrikariak
 Suhiltzaileak
 Iturginak
 Aseguruak
 Sarraileak
 Bidaiak
 Jatetxeak



e u s k a l d u n o n
Egunkaria

Ileapaindegiak
 Ikuskizunak
 Argazkilariak
 Haurtzaindegiak
 Mekanikariak
 Dentistak...

K
O
M
E
R
T
Z
I
A
L
A



Kooperatibei nahiz Deba Garaiko enpresei zabalduko zaie ELIEren zerbitzuaren berri.

ELIE Kooperatiba Elkarte

Enpresak euskalduntzeko kooperatiba berria

Kooperatiba Elkarte berri bat sortu da Eskoriatzan: ELIE Koop. Elkarte. Sigla horien atzean bi enpresa edo talde daude, Elhuyar kultur elkarte eta Eskoriatzako Irakasle Eskola. ELIEren egoitza berriz, Irakasle Eskola da eta bere helburua enpresak euskalduntzeko era guztietako zerbitzuak eskaintzea.

Irakasle Eskolaren eta Elhuyarren azpiegiturak aprobetxatuz, ELIE bitariko kooperatiba sortu da eta bertan zazpi bat lagun ari da lanean urtarrietik. Euskalduntze plangintzak MCCko kooperatibetan eta Deba Garaiko enpresetan burutuko dituzte, beti ere enpresek euren lan harremanak euskalduntzeko

borondaterik badute.

Julen Arexolaleibak, ELIEko kide batek azaltzen duen moduan, ELIE Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailordetza iristen ez den behar bati erantzutera dator ere: "Orain urte batzuk Eusko Jaurlaritzak enpresak euskalduntzeko mikroplangintzak jarri zituen martxan. Elhuya-

rren eta HABEren bidez bideratu ziren mikroplangintza horiek enpresetara, Ikerlan, CAF, ELAYra..., baina Jaurlaritzak berak plangintza horiek enpresetan bideratzeko duen aurrekontu urria dela eta, oso enpresa gutxi hartu du bide hori. Pentsa, plangintzaren hiru urteko fasea bete duen enpresa bakar bat dago, Antzuola-

ko ELAY. Beraz, aurrekontu murriz hori dela eta, plangintzan sartu nahi duten beste enpresa guztiei ezin die erantzun Jaurlaritzak, 15 milioiko aurrekontua bakarrik du eta. Enpresak Eusko Jaurlaritzak euren plangintza sartzeko txandaren zain egonez gero, urte asko eta asko pasa daiteke, beraz, ELIE sortu dugu enpresak dirulaguntzen zain egon ez daitezen eta euskalduntze prozesu horretan sartu ahal izan daitezen lehenbailehen. Beraz, ELIEk Eusko Jaurlaritzaren mikroplangintza eredu berberak hartu ditu eta euskaldundu nahi duten enpresei bere zerbitzua eskainiko die”.


ELIEko kideekin izandako solasaldian, Mondragon Unibertsitatearen gaia ere irten da. Arexolaleibak esaten duenez, unibertsitateak, bere zerbitzuen artean enpresak euskalduntzeko zerbitzua eskaini ahal izango du. Izan ere, Irakasle Eskolak 20 urte daromatza euskara mundurako irakasleak formatzen, eta Mondragon Unibertsitatea sortu eta sendotzen denean, ELIEk unibertsitateak dituen euskararen egitekoak bere gain hartu ahal izango ditu.

EUSKALDUNTZE FIDAGARRI BAT

“Lehen euskara ez zekitenek ikasi egin behar zuten. Orain gehiago da euskara dakitenen erabilera bultzatzea, eta horrela ez dakitenak edo hitzegitera ausartzen ez direnak motibatzea eta ikasteko gogoak kutsatzea”, -dio Jesus Garmendia Irakasle Eskolako zuzendariak-, hori da eta ELIEren mikroplangintzaren motorra: langileak eurak euren artean animatzea”.

ELIEren mikroplangintzak bestalde, alde batera uzten du Arexolaleibak *kanpainitisa* eta *parakaidismoa* deritzanak. Enpresak berak era-

Mondragon Unibertsitatea sendotzen denean, ELIEk unibertsitateak dituen euskararen egitekoak bere gain hartu ahal izango ditu.



Jesus Garmendia eta Julen Arexolaleiba dira ELIEko langileetako eta sortzaileetarikoa

bakitzen du plangintzan sartu nahi duen ala ez; ez zaio behartzen, eta bestalde, langileek erabakitzen dute plangintzan zenbateraino sartu nahi duten. Beraz ez da kanpaina bat, epe luzeko proiektu bat baizik.

Julen Arexolaleibak esaten du ere, langileek formula berri bat behar dutela euren enpresetako giroa euskaldunduko duen plangintza batean berriz konfiantza izateko. Berriz dio, zeren 60. hamarkadaren amaieran euskara bultzatzeko saiakera bat egon zen kooperatibetan, baina 80. hamarkadan krisia etorri eta egindako ahalegin guztiak

ahaztu egin ziren. Julenek ziurtatzen duenez, gaur egun kooperatibetako kontseilu sozialetan edo batzar nagusietan ez da euskararen inguruko hitz bat bera ere entzuten: “Horrek esan nahi du langileek kooperatibetan egon zen euskalduntze prozesuaren beheraldia ezagutu eta gero,

berriz gorakada bat egon dadin, hasieran eskaini zitzaiena baino zerbait hobea behar dutela, fidagarriagoa, eta Eusko Jaurlaritzaren mikroplangintzek edota guk gestionatzera goazen mikroplangintza berak fidagarritasuna eman diezaike euskaldundu nahi duten horiei”.

ELIEkoen ustez, alor produktiboa falta da euskalduntzeko. Administrazioa euskalduntzen ari da, eskola, eta baita komunikabideak ere.



ELIE



“Alor produktiboa beti jo da gizartearen motortzat. Beraz, nola daiteke alor hori euskalduntzeko hain ahalegin gutxi egin izana?”

Julen Arexolaleiba

galdera. ELIEk kontratatuko teknikoak, hau da, mikroplangintza hori aurrera eramateaz arduratuko den teknikoak ez du euskaldundu nahi duen langile talde baten tizat lan egingo, talde horrekin egingo du lana. Teknikoaren lana ez da izango lan harremanak euskalduntzeko sistema konkretu eta finko bat ezartzea, edota langileei ez die esango noiz zer egin behar duten. Teknikoa bera eragingarri bat izango da baina harremanetan euskaraz mintzatu nahi duen taldearentzat, hizkuntz ohiturak aldatuz joan daitezten. Mikroplangintzarekin ez da nahi jendeak bere euskarazko eza gutzan sekulako saltoa ematea, baizik eta erabilerari begira izan ditzaketen gabeziak detektatu eta taldean eragitea.

ELIEk MCCko zerbitzu kooperatiban hasi du bere

mikroplangintza 40 langileekin. Jon Sarasua hasi da hori lantzen eta bere eginkizuna enpresaren barruko eta kanpoko harremanen euskalduntzea planifikatzea izango da momentuz. Euskalduntze hori garatzeko Komunikazio Zirkularra deritzon sistema erabiliko da.

Dena dela, ELIEk beste 8 enpresei eman die bere zerbitzuen berri, guztiak Deba Garaitik kanpokoak. Alecoopek bestalde, baietza eman dio dagoeneko ELIEri.

Aipatutako mikroplangintzaz gain, ELIEk beste zerbitzu batzuk ere eskainiko ditu aurrerantzean eta kooperatiba sendotuz joan ahala: agiriaren diseinua, terminologi zerrendak, itzulpen gintza, informatika ekipamendua edo eskuliburuak ere eskainiko ditu. ■

Maidar Egües

Honen aurrean Jesus Garmendiak dio: “Alor produktiboa beti jo da oso garrantzitsutzat, gizartearen motortzat. Hori horrela bada, nola daiteke alor hori euskalduntzeko hain ahalegin gutxi egin izana orain arte?”.

NORENTZAT BAINO, NOREKIN

Norentzat baino, norekin da ELIEren mikroplangintzaren filosofiarekin egin daitekeen

Mikroplangintzaren prozesua

Enpresetan euskararen erabilera areagotzeko mikroplangintzaren prozesua plangintzaren aurkezpenarekin hasten da, enpresak bere lan harremanak euskalduntzeko interesik duen jakiteko. Enpresarekin programan parte hartzeko adostasuna lortu eta gero, bideragarritasun azterketa bat egiten da, hau da, datuak biltzen dira ELIEk bere plangintza enpresan aurrera eramateko dituen aukerak ezagutzeko. Ondoren plangintzaren aurkezpena egiten zaie enpresako agente guztiei eta atal honetan garrantzitsua da bai zuzendaritzak eta bai langilegoak hasiera batetik plangintzan sartzeko adostasuna lortzea. Adostasuna badago, plana lantzeko datu bilketa hasten da: enpresa horretako sektore desberdinetan zenbaterik dakiten euskara, jende horren jarrera zelakoa den ikusi eta elkarriketa pertsonalak egiten zaizkie plangintzan parte hartu behar dutenei perfil bat lortzeko. Planaren diseinua egiten da eta enpresari aurkezten zaio. Ondoren enpresak berak plangintzan ekarpenak edo egokitzapenak egiteko aukera izaten du. Plana adosten denean, inplementazio atala dator, hau da, plana praktikan jartzen da. Hau ELIEko teknikariaren lana da eta Komunikazio Zirkuluen bidez burutzen da. Teknikaria urtebete edo bi urtetan, langile horiekin egoten da maiztasun finko batean. Teknikariak sei hilabeteko txosten bat aurkezten dio jarraipen batzordeari.

Kontuan izan behar da mikroplangintza guztiak ez direla berdinak, plangintza aplikatzen den enpresako sektore guztien beharrak ez dira berdinak eta. Honek esan nahi du desberdina dela mikroplangintza bat aurrera eramatea katean aritzen den langile multzo baten artean, edo administrazio lanetan aritzen den beste baten artean. Plangintza aurrera eramateko eskatzen den baldintzen artean, sektore batean gutxienez %75ak plangintzan sartu nahi izatea dago.

IE

Euskadiko judo txapelduna

ITZIAR ZABALA

Euskadiko Txapelketa irabazi eta estatukoa prestatzen

— Eskadiko txapelketa irabazi duzu 19 urte azpikoaren artean, espero zenuen?

— Ez, aurretik nortzuk hartu behar zuten parte bane-kien, baina lagun horien artean beti irabazten didan Erren-deriko bat zegoenez, sorpresa izan zen txapeldun gera-tzea.

— Nola ospatu zenuen?

— Ez nuen ospatu.

— Aurreko gaua nolakoa izan zen?

— Gaua ondo pasa nuen baina txapelketa egunean urduri nengoan, batez ere hasieran.

— Zergatik aukeratu duzu judoa?

— Lehengusua judoan zebilen, behin entrenamendu bat ikustera joan nintzen eta gustatu zitzaidanez izena ema-tea erabaki nuen. Gaur egun judoa ez nuen beste kirol bategatik aldatuko.

— Hurrengo helburua?

— Martxoaren 15eta 16ko asteburuan estatuko txapelketan izango naiz. Jende ona egoten denez, ez noa itxaropen askorekin.

— Eramaten duzuen jantzia eroso da?

— Entrenamenduan ere jarri behar denez ohitu egiten zara. Niretzat eroso da.




FUTBOLA Gernika eta Anaitasuna aurkari



Mondra emakume taldeak eta Gernikak elkarren kontra neurtuko dituzte indarrak domekan goizeko 11etan Gernikan. Lehen bueltan Arrasatek 4 eta 1 irabazi zion Bizkaiko taldeari, beraz, arrasatearrek itxuraz ez lukete arazorik izan behar puntuak eskuratzeko. Une honetan bost partidu falta dira denboraldia bukatzeko eta horietatik hiru irabaziz gero, Mondrak ez luke jeisteko arriskurik izango.


Preferente mailako Mondrak Anaitasuna izango du aurkari Atxabalpen. Neurketa domekan arratsaldeko 4.30etan jokatuko da. Azkoi-tiko taldeak Mondrak baino lau puntu gutxiago ditu eta sailkapeneko 6. tokian dago. Jesus Mari Barrutiabengoa-ren mutilek goialdean jarraitzeko garaipenak behar dituzte eta horretan ahalegin behar-koro dira domekan.

ESKUBALOIA Azkenean garaipena




Tres de Mayo aurkari zuzenaren aurrean garaipena lortu zuen Arrasatek asteburuan. Puntu horiek garrantzitsuak izan arren, ez dute ezer esan nahi hurrengo neurketa irabazten ez bada. Zapatuan arratsaldeko 6etan Arrasatek Sarria talde sendoaren bisita jasoko du Iturripen. Ibon Alzelaireren mutilentzat hil ala biziko partidua. Irabaziz gero, oraindik lehen mailan jarraitzeko aukera izango lukete, galduta etorkizun beltza.

SASKIBALOIA Ea hurrengoan den!




Urbina Maltzagak zer egin behar du irabazteko? Ondo jokatu bate-tik eta konfidantza gehiagorekin kantxara irten bestetik. Hori egin behar du Arrasateko saskibaloitaldeak denboraldi bukaera arte falta diren ihardunaldietan. German Mongek zuzentzen duen taldea ezin burua altxatu dabil azken tokietan kokatuta. Hortik irteteko beste aukera bat izango du domekan Helios taldearen aurrean. Helios 21 ihardunaldia jokatutenean 10. tokian dago sailkapenean 29 punturekin; Urbina Maltzagak 26 ditu.

RUGBYA Puntuen bila



Patxi Gorosabelek zuzentzen duen taldea puntuen bila zelairatuko da zapatuan Garagartzan. Nor baino nor Mungia taldea izango du arratsaldeko 4etan eta sailkapenari begiratuta irabazteko moduko partidua ematen du. Usteak betetzen badira, etxean gera daitezke puntuak eta Arrasatek sailkapenean beste toki bat eskuratu.

PILOTA Deba Arroa



Arrasateko pilotariak Deba Arroa txapelketako neurketak izango dituzte. Zapatuan arratsaldeko 4etan infantilak Eskoriatzan eta Bergaran izango dute zita. Domekan goizeko 11etan kadete, jubenil eta afizionatuek Oñatin.

Born-Jay txirrindulari taldea 97. denboraldian

ARGAZKIAK: FOTO-IMAGEN.



Gorka Valgañon
20 urte
arrasatearra



Oscar Estevez
20 urte
arrasatearra



Iban Sastre
20 urte
atxabaltarra



Sergio Frutos
20 urte
eskoriatarra



Jabier Migel
20 urte
andoaindarra



Oskar Askasibar
22 urte
elgetarra




Xabier Lizaso
21 urte
usurbildarra



Iago Arranz
21 urte
laudiotarra



Iñigo Mondelo
20 urte
donostiarra




Marcos Gonzalez
22 urte
tarrasarra



Agustin Ulanga
21 urte
legorretarra



Iñigo Carbalho
21 urte
laudiotarra




Joaquin Soler
22 urte
matarotarra



Jose Ramon Aiastui
22 urte
oñatiarra



Jon Unanumo
19 urte
bergararra




Zuhaitz Herrero
19 urte
arrasatearra



Jose Sedano
19 urte
arrasatearra



David Sojo
19 urte
laudiotarra



Zapatu eta domekan lehen faseari agur

Laburrak

■ SAILKATUAK ETA SAILKATZEKO BIDEAN DAUDENAK

Lehen fasea azkenetara helduko da datorren asteburuan. Zapatu eta domeka bitartean talde ugari agur esango dio txapelketari, beste batzuk berriz, fase berriari ongietorria eman. Multzo multzo gainbegirada emanaz, saltsa handiena Bn dagoela esan daiteke. Lehen multzoan dagoeneko zazpi talde daude sailkatuta: Irati STS, Lorategi, Betrayar, Arrogio Taberna, Aurrera Bolie, Galartza Kontenedoreak eta Totem. Falta diren bi postuak lau taldeen artean erabakiko dira: Ojo Avisore, Abinagraus, Onariereng eta DKB. Lehia ziurtaturik. B multzoan Naranja Mekanika, Cerveceria Leintz eta Okoretegi bakarrik daude sailkatuta, beraz zazpi postu jokoan eta aukerarekin bederatzi talde. Gainera ez da ahaztu behar 4. postutik 9.era arte 24 punturekin daudela. Zer gertatuko den batek daki!. Azken multzoan zazpi talde bigarren fasean: Sortu Informatika, Txeyenex, Nuevo Taberna, MSM Ingenieria Integral, Sokoakoak, Orlando Piratas eta Bedarreta Taberna. Sailkatze aukera handiarekin Adelaida Aldibi eta Koka Juniors. Falta den talde bakarra; AC surcos, Danok Lagun eta KK Jaurlaritzari taldeen artean egongo da. Multzo bakoitzetik hamar talde eta txapelketa-ko 11. bi talde onenak sailkatuko dira.



**Parques
y Jardines**

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Irati STS	20	18	1	1	110	35	37
Lorategi	20	15	3	2	82	42	33
Betrayer	20	16	0	4	112	46	32
Arrogoi tab.	20	15	0	5	75	79	30
Aurrera Bolie.	20	13	2	5	101	61	28
Galartza kont.	20	12	2	6	86	56	26
Totem	20	11	2	7	73	60	24
Onaniereng	20	11	2	7	56	66	24
DKB	20	9	5	6	63	52	23
Abinagraus	20	10	2	8	96	59	22
Ojo Avisore	20	10	2	8	85	70	22
Me la pela	20	9	2	9	74	64	20
Baneuko	20	9	2	9	47	49	20
Berango suk.	20	7	3	10	75	80	17
Leya	20	6	1	13	64	91	13
Potosorri	20	6	1	13	54	99	13
Viboras	20	5	2	13	76	111	12
Alai gozokiak	20	3	5	12	45	104	11
Kriskibalda	20	2	4	14	34	76	8
Etxe Mobil	20	1	0	19	23	163	2
Kaxi ganamos	20	0	1	19	3	34	1

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Naranja Mecanica	20	18	0	2	138	46	36
Leintz garag.	20	15	3	2	109	36	33
Okoretegi	20	15	3	2	95	35	33
Diego Antonio	20	12	0	8	106	74	24
Jotakabau	20	10	4	6	63	73	24
Pepelus	20	10	4	6	85	68	24
Ke Oxtias!	20	10	4	6	71	57	24
Insert Coin	20	11	2	7	85	51	24
Los Innombrables	20	10	4	6	71	57	24
Fosforos	19	10	2	7	95	81	22
Los Heredia	20	10	2	8	80	72	22
Motz	20	9	4	7	82	83	22
ZZPPW7	20	7	5	8	91	96	19
La mosca gao	20	7	4	9	111	104	18
Sobredosis	20	8	2	10	72	91	18
Perrahotsa	20	7	3	10	54	72	17
Gualtrapas	20	6	1	13	58	101	13
Kinker konpresa	19	4	1	14	66	107	9
Ganbelas	20	3	0	17	54	103	6
Elisabeth	20	1	3	16	48	166	3
Hapoe! Jamon	20	0	1	18	37	161	1

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Sortu Informatika	20	15	2	3	99	44	32
Txeenex	20	14	4	2	94	53	30
Nuevo tab.	20	13	4	3	112	53	30
MSM Ing. Int.	20	13	4	3	85	59	30
Sokoakoak	20	13	1	6	105	68	27
Orlando Pirates	20	12	3	5	91	74	27
Bedarreta tab.	20	12	1	7	69	53	25
Adelaida Aldibi	20	11	2	7	88	70	24
AC Surkos	20	11	2	7	132	75	24
Koka Juniors	20	10	3	7	78	71	23
Danok Lagun	20	10	3	7	65	64	23
KK Jaurilaritzari	20	11	1	8	69	79	23
Los Dimy	20	10	1	9	71	83	21
Hirei	20	7	2	11	54	89	16
Lautherbrunnen	20	8	0	12	60	99	16
Cartonajes Igamo	20	6	3	11	56	74	15
Bukanak	20	6	1	13	55	82	13
Tronkoteak	20	6	0	14	34	89	12
Borrock'n Roll	20	5	1	14	83	93	11
Anbotoste	20	4	0	16	32	59	8
Rotor de bolbog.	20	1	3	16	7	51	5
Iluna taberna	20	1	1	18	31	95	3

Laburrak

BI PUNTU GUTXIAGO

Elisabeth taldeari bi puntu kendu dizkio- te epaitzera ez zela- ko aurkeztu.

BILERA GARRANTZITSUA

Datorren astelehene- an bilera izango dute bigarren faserako sail- katu diren taldeek Monterronen arratsaldeko 7etan. Ber- tan hasiko den fase- ko xehetasunak

emango dira eta gal- derak egiteko aukera egongo da. 9.30etan berriz, ATBko Mon- drasport saioan tal- deen zozketa ikusi ahal izango da zuzenean. Era berean ikus- leek Zaldibarko anto- latzaileei telefono bidez galderak egite- ko aukera izango dute Asteartean arratsaldeko 7.30etan Uri- be Auzoa txapelketa inguruko bilera egon- go da Monterronen.

Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
Tel.: 71 20 02

Emaitzak

- A taldea**
- Me la pela 4 - Leya 3
 - Potosorri 0 - Abinagraus 14
 - DKB 4 - Betrayer 2
 - Pipwhis 0 - Ojo Avisore 1
 - Oñaniereng 3 - Arrogoi Taberna 2
 - Totem 2 - Irati STS 5
 - Viboras 3 - Lorategi 13
 - Etxe Mobil 4 - Alai Gozokiak 7
 - Galartza Konten 2 - Aurrera Bolie 1
 - Berango Sukal 0 - Baneuko 3.

- B taldea**
- Perrahotsa 4 - Jotakabau 2
 - Cerveceria Leintz 3 - Okoretegi 0
 - Naranja Mecanika 1 - Argi Ibilii 0
 - Pepelus 3 - Ke Oxtias 2
 - Los Heredia 9 - Ganbelas 1
 - Gualtrapas 3 - Insert Coin 1
 - lisabeth 3 - Motz 17
 - Fosforos 11 - ZZPPW7 5
 - Hapoe! Jamon 1 - Los Innombrables 12
 - Diego Antonio 6 - Kinder Konpresa 3
 - La Mosca Gao 12 - Sobredosis 1

- D taldea**
- Txeenex 9 - Sokoakoak 6
 - AC Surkos 10 - Lautherbrunnen 6
 - KK jaurilaritzari 1 - Iluna Taberna 0
 - Adelaida Aldibi 3 - Orlando piratas 3
 - Tronkoteak 0 - Bedarreta Taberna 1
 - Hirei 1 - Danok lagun 7
 - Los Dimy 11 - Cartonajes Igamo 4
 - Borrock'n Roll 0 - MSM Ing Int.1
 - Anbotoste 0 - Nuevo Taberna 1
 - Sortu Inform. 3 - Koka Juniors 4

Hurrengo partiduak

21. ihardunaldia
Martxoak 8. Larunbata
Zaldibar

8.50	Lautherbrunnen - KK Jaurilaritzari
10.00	Lso Innombrables - Diego Antonio
11.00	Sokoakoak - AC Surkos
12.00	Okoretegi - Naranja Mecanika
13.00	Danok Lagun - Lso Dimy
14.00	Aurrera Bolie - Berango Sukaldeak
15.00	Baneuko - Me la pela
16.00	Jotakabau - Cerveceria Leintz
17.00	Ojo Avisore - Oñaniereng
18.00	Ke Oxtias - Los Heredia
19.00	Abinagraus - DKB

Iturripe A

14.00	Ganbelas - Gualtrapas
15.00	Leya Potosorri
16.00	Sobredosis de txeira - Perrahotsa
17.00	Alai Gozokiak - Galartza Konte

Iturripe B

15.00	Insert Coin - Elisabeth
16.00	Lorategi - Etxe Mobil
17.00	Irati STS - Viboras

Martxoak 9, Igandea
Zaldibar

8.50	Bedarreta Taberna - Hirei
10.00	ZZPPW7 - Hapoe! Jamon
11.00	Kinder Konpresa - La mosca Gao
12.00	Nuevo Taberna - Sortu informatika
13.00	Motz - Fosforos

MAITE MONROY (AUTODEFENTSA IKASTAROAREN EMALEA)

“Erasoen atzetik emakumeak”

Emakumeei zuzendutako autodefentsa ikastaroa hasiko da laster Arrasaten eta ikastaroaren emalea Maite Monroy izango da, 24 urteko bilbotarra. Askok pentsatuko duzue neska hau judoan edo karaten aditua izango dela, baina ez da horrela. Maitek dioen moduan, autodefentsaren gaiak ez du arte martzialekin zerikusirik.

Erasoen aurrean zer egin irakasten da ikastaroan, baina batez ere emakumearen autoestima indartu eta emakumeen arteko elkartasuna bultzatzea dira ikastaroaren helburuak. Apirilaren 8an hasi eta 24an bukatuko da Udaleko Emakume Sailak antolatutako ikastaroa.

- Zer dela eta autodefentsa ikastaroak ematen?
- Autodefentsaren inguru-

ruan interesa zegoenez, orain dela bederatzi urte gai horri buruz lan egingo zuen batzordea eratu zuen Bizkaiko Emakumeen Asanbladak. Hasieran Alemaniatik irakasle bat etorri zen arlo fisikoa irakasteko, eta psikologo batekin atal psikologikoa landu genuen. Ikastaroan parte hartu, eta ordutik ni neu ari naiz autodefentsa zer den azaltzen.

- Ikastaro honetan parte hartzeko sasoiaren egotea ez dela derrigorrezkoa diozu.

- Autodefentsaren gaiak ez du arte martzialekin zerikusirik, beraz, berdin da ikastaroan parte hartuko duten emakumeak sasoiaren egon ala ez. Defendatzeko batzuetan nahikoa da zerbait

esatea edo begirada jakin bat botatzea.

- Zeintzuk erasotzen dituzte emakumeak?

- Gizonezkoek egiten dituzte erasoak emakumeen aurka.

kumezkoak baino gehiago direla adierazteko, kontrol soziala ezartzeko eta emakumeen autoestima eta askatasuna ezabatzeko. Horri biolentzia sexista deitzen zaio.

Errealitateak

“Errealitateak erakusten du defendatu egin behar dugula. Estatuan 90 emakume hiltzen dira urtero euren senarren eskuetan”



erako kontrolatu nahia dago”

erakusten du defendatu egin behar dugula. Estatuan 90 emakume hiltzen dira urtero euren senarren eskuetan, eta horrez gain eraso eta bortxaketa pila bat gertatzen da. Askotan emakumeoi botatzen zaigu errua baina gu ez gara erasoen errudunak. Behin baino gehiagotan entzun ditugu langabezia dago, mozkorra zegoen, depresioak jota dago edo probokatu egin duzu bezalako justifikazioak, baina ez da kasualitatea erasotuak emakumeak izatea. Guzti horren atzetik emakumeak kontrolatu nahia dago.

- Zer irakasten da ikastaroan?

- Ikastaroak bi zati ditu: psikologikoa eta fisikoa. Psikologikoa jendurrean hitzegiterako orduan lotsarik ez izaten, erasotzaileak publikoki salatzen, eguneko edozein ordutan kalera bakarrik ateratzeko beldurra kentzen eta bereziki autoestima lantzen irakatsiko da. Autoestima oso garrantzitsua da, zaila da eta norberaren burua defendatzea ez baduzu uste inportantea zarela eta edozein tokitan egoteko eskubidea duzula.

Bestetik emakumeen arteko elkartasuna landuko dugu. Borroka honetan konplize izan behar dugu, zeren gaur ni erasotzen banaute bihar beste bat izango da eta etzi beste bat. Arazoa emakume guztiona da, eta guztion artean aurkitu behar dugu irtenbidea. Norbera defendatzen ikastea garrantzitsua da.

trikimailu txiki batzuk irakatsiko ditut, baina horretarako ez da aparteko indarrik behar.

- Erasoa aipatzean bortxaketa etortzen zaigu burura, baina bada beste erasorik ezta?

- Bai eraso asko normal-

behar da. Lotsa eta beldurra alde batera utzi eta erasotuak izaten ari garela esan behar da. Jende guztia dago bortxaketen kontra, baina zer gertatzen da egunero jasaten ditugun erasoekin? Horien kontra ere egon behar da.

Hala ere garbi utzi nahi nuke hau ez dela gizonetzkoen aurkako gerra bat. Izatekotan, erasoak egiten dituzten gizonetzkoen kontrako gerra da. Horregatik, horrelako ekintzen aurka dauden gizonetzkoek ere lagun dezakete erasotzaileak salatuz. Gizonetzkoak ez daitezela konplize izan.

- Ikastaroa zein adineko emakumeei zuzenduta dago?

- Helduei eta gazteei. Ikastaroren batean izan dut 13 nahiz 60 urteko partaiderik. Nik emakume guztiak animatuko nituzke, ikastaroa dibertigarria izango delako eta parte hartu ondoren askoz ere seguruagoak sentituko direlako. Emakumeek uste izaten dute ez dugula erasoei aurre egiteko errekurtsorik, baina asko ditugu. Ikastaroa 15 ordukoa izango da, eta ordu horiek nahikoa dira gaia lantzeko. Toki batzuetan ikastaroak arrakasta izan duenez, ea Arrasaten ere horrela den. ■

“Garbi utzi nahi nuke hau ez dela gizonetzkoen aurkako gerra bat. Izatekotan, erasoak egiten dituzten gizonetzkoen kontrako gerra da”

• • •

“Emakumeek uste izaten dute ez dugula erasoei aurre egiteko errekurtsorik, baina asko ditugu”

tzitsua da, baina kolektibo moduan defendatzen ere jakin behar dugu. Nire ustez arlo psikologikoa da garrantzitsuenak. Zertarako balio dit kungu jakiteak ez badut nire burua defendatzeko indarrik?

Bukatzeo arlo fisikoa

zatu eta horiekin bizi izaten ohitu gara, esaterako, ahozkoekin edo emakumea gutxieteko egiten direnekin. Taberna batean emakume bati ipurdian ikutzeak ez duela garrantziarik uste da, baina hori ere eraso bat da eta salatu egin

**HIES
EKIMENA**

Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.

Tel.: 79 26 99



Alkoholarekin arazoak daukazu? Agian,
“Alkoholiko Anonimoek”
lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa) • Tel.: 61 93 38

Bazar
TOKI ON

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

Erdiko Kale, 7
Tel.: 79 91 64 • ARRASATE

Hastapen mailako taila ikastaroa ARTEren eskutik

ARTEk, Arrasateko Tailaginen Elkartek hasiera mailako taila ikastaroa antolatzen du. Kepa Uribarrenek emango ditu eskolak martxoaren 17tik aurrera astegunetan eta larunbatetan bi orduz.

Tailaginen elkartek orain dela 10 bat urtetik urtero antolatzen ditu bi ikastaro, bat hasiera mailakoa eta beste bat urria aldera sakontzekoa. Iñaki Zubillagak ARTEko jurtako kideak esaten duenez, jende berria hurbiltzen da urtero taila ikastera eta badaude batzuk, ikastaroa amaitu eta gero ARTEko bazkide egiten direnak. Bestela ere bada urte baten ikastaroan parte hartu eta hurrengoan ere parte hartzea animatzen denik eta gainera batzutan ezin izaten diote izena eman nahi duten guztiei baiezkotzerantzuna eman, plaza mugatuak dira eta.

Hastapen mailako ikastaroan Kepa Uribarrenek tailaren oinarri teknikoak erakutsiko ditu eta parte hartzen dutenek egurrean euren lehen



Kepa Uribarrenek emango du taila ikastaroa.

marrakitxoak egitera helduko dira, izarrak eta hostoak adibidez. Hastapen mailako ikastaroa eta gero taila ikasten jarraitu nahi duenak ordea, sakontze mailako ikastaro batean parte hartzeko aukera izango du, eta gainera, bazkide eginez gero beti izango du nork lagundu lokalera joaten denean.

Martxoaren 17an hasiko den ikastaroan izena ematen dutenek 5.000 pta. ordaindu beharko dute. Prezio horren

barruan egurra eta lana egiteko tresnak sartzen dira. Ikastaroak 30 orduko iraupena izango du.

Iñaki Zubillagak jendea animatu nahi du eta esaten du "taila egitea afizio entretenigarria da eta gainera irudi benetan politak egitera heldu zaitezke".

Ikastaroan izena eman nahi dutenek martxoaren 16ra arte izango dute aukera. Izenematea 79 40 79 edo 79 67 64 telefonoetan egin daiteke.

Harresia aurkitu

Astelehenean hasi ziren Arkeologo langileak Iturriotz kaleko 17. zenbakiko lurrean indusketa lanak egiten. Arrasateko harresiaren zati bat aurkitzea zuen helburu indusketa horrek eta asteartean euren asmoak egi bihurtu ziren. Lurra garbitzen ibili ondoren, Mercedes Urteagaren zuzendaritzapean lanean aritu diren hiru langileek harresiarekin egin zuten topo. Asteazken eta ostegunetan berriz, harresiaren ahalik eta zatirik handiena agerian uzten saiatu ziren. Gaur Arkeologo delinenteak joan dira harresiaren marrazkiak egitera.



Ez da harresiaren aztarnak agertzen diren lehen aldia.

3 HITZALDI MARTXOAN

1 Gaia: "Emakumea herri arabiarretan"

EMALEA: **Oihane Oliveri** eta **Elena Biain** (Amnesty International-eko partaideak)
EGUNA: **Martxoaren 10ean**
ORDUA: **7etan**
TOKIA: **Arrasateko San Andreseko auzo-alkatetzan**

2 Gaia: "Landareak beste ikuspegi batetik"

EMALEA: **Jakoba Rekondo**
EGUNA: **Martxoaren 13an**
ORDUA: **3.30etan**
TOKIA: **AEDko lokalean (Pablo Uranga, 4).**

3 Gaia: "Landareak beste ikuspegi batetik"

EMALEA: **Jakoba Rekondo**
EGUNA: **Martxoaren 13an**
ORDUA: **6.00etan**
TOKIA: **Gesalibarko auzoko lokalean.**

ANTOLATZAILEAK:



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■

IÑAKI RIVIERE

“Saltzeko orduan betiko arazoarekin egiten dut topo: nire koadroak handiegiak dira”

Hogeitalau urteko gazte honek bere koadro erraldoien erakusketa zabalduko du bihar Harresi aretoan. 1994an jarri zuen azkena herrian, eta orain bere estilo errealistari jarraituz margo argiagoeekin datorkigu. Azken boladan ispiluetan isladatzen diren irudi deformatuak eta industriako erremintak izan dira bere inspirazio.

— Zer ikus daiteke zure erakusketan?


— Hamabost bat koadro ikus daitezke, gehienak egin ditudan azken bi serietakoak, *Deformaciones* eta *Testigos Mudos* serietakoak. *Deformaciones* seriea ispiluetan erreflejatzen diren irudietan oinarrituta dago eta *Testigos Mudos* seriea langileekin harreman zuzena izan duten lanabesetan, hau da, erremintak, prentsak... Lehen fabrikak bakarrik margotzen nituen baina etapa hori utzi egin dut eta orain gauza konkretuagoak margotzen ditut.

— Zertan aldatu da zure estiloa?

— Lehen kolore ilunak baino ez nituen erabiltzen, orain kolore argiagok erabiltzen hasi naiz eta alde horretatik eboluzio bat somatzen da nire estiloan. Bestalde, lehen fabrika bati argazkia atera eta gero nik nahi nion argia edo perspektiba ematen nion; orain berriz, ispiluak bilatzen ditut kalean eta horiei argazkia ateratzen diet. Erreflejatzen den hori deformatuta agertzen da eta nik horrela margotzen dut, manipulatu barik.

— Zein harreman daukate euren artean bi serie berri horiek?

— Industria deformatuz joan da, indarra galduz, eta deformazio hori beste gauza guztien deformazioaren



islada da, hau da, denboraren poderioz gauza guztiak deformatzen dira. Denboraren argumentuak beti interesatu nau.

— Aurrez egin dituzun erakusketan zelako harrera izan dute bi serie horiek?

— Algortako hotel batean egin dut azken erakusketa eta arrakasta handia izan du baina betiko arazoarekin egin dut topo: nire koadroak handiegiak dira eta beraz, zailak saltzeko. Koadro batzuk saldu ditut, jende berria ezagutu dut ere eta hori oso garrantzitsua da.

— Arrasaten 94an egin zenuen zure azken erakusketa. Honetan zer espero duzu?

— Arrasaten sekula ez dut lortu koadrorik saltzea baina herrian bertan erakusketa jartzeak asko lagundu dit ondoren saldu ahal izateko. Herriko jendeak eta lagunek “zein ondo margotzen duzu! Zein koadro onak!” esaten didate eta nik berriz, dirua aurreztu eta erosteko esaten diet. Lorak jasotzea oso ondo dago, baina hobeto saltzea.

aste gazte

■ BEKAK

• 97-987 ikasturtean iker-tzaileak prestatzeko bekak, Eusko Jaurlaritzak deituta. Gaiak: biologia, bioteknologia, osasun zientziak, matematikak, fisika, psikologia, kazaritza. Epea: martxoak 20.

• Eusko Ikaskuntzak eta Institut D'Estudis Catalans-ek, katalan nahiz euskal kulturari buruzko ikerketak burutzeko bekak deitu dituzte. Epea: apirilak 28.

■ LANA

• Zallako Udalak erizain laguntzaile lanpostu bat deitu du. Epea: martxoak 12.

• Bizkaiko Diputazioak bi lanpostu hauek deitu ditu: legerari aholkularia eta bide, kanal eta portuetako ingeniaria. Epea: martxoak 14.

• Kaparrosoko Udalak idazkari lanpostua betetzeko deia egin du. Epea: martxoak 14.

■ LEHIAKETAK

• Jaizkibelgo Igoera iragartzeko kartel lehiaketa. Epea: apirilak 5.

■ IKASTARO GAZTEAK

• Euskal dantzak: 15 urtetik gorakoei zuzenduta, ostiraletan, martxoaren 14tik San Juanak arte, 7etatik 8.30ak arte. Matrikula 1.000 pta.

• Irrati tailerrak: a) irrati kontrola, apirilak 1etik ekainak 17ra, astearteetan 7etatik 9.15etara. b) erredakzio eta lokuzio tailerra, apirilak 2tik ekainak 18ra, asteazkenetan 7etatik 9.15etara. Matrikula, 3.000 pta/1.500 ikasle eta lan-gabetuentzat.

Iñaki Riviereren koadro berriak eta zahar batzuk ikusi daitezke Harresi aretoan.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Eguzki dorrean 80 m²ko etxebizitza salgai. Oso eguzkitsua da eta erdi jantzita dago. Tel.: 79 23 67.

• Aramaion pisua salgai. Tel.: (945) 44 50 50.

• Larreako etxeetan etxebizitza salgai. Tel.: 79 36 79.

• San Josepe auzoan 65m²ko etxea salgai. Tel.: 77 08 06.

• Juan Carlos Guerra plazan etxebizitza salgai. Tel.: 79 41 48.

• Eguzki dorrean 80 m²ko etxea eta 20 m²ko garajea salgai. Oso eguzkitsua da eta erdi jantzita dago. Tel.: 79 23 67.

2. Erosi

• Etxe bila nabil, unifamiliarra, adosatua edo txaleta. Alokatzeko edo erosteko. Deba Bailaran edo inguruetan. 130 m² izan behar ditu gutxienez, jardina eta garajea. 76 91 30.

• Deba Garaian 60 m²ko apartamentua erosiko nuke. Dei egin gauz. Tel.: 79 23 60.

3. Errentan emateko

• Apartamentua alokatzen da Torre Viejan, hileka edo 15 eguneka. Playa del Curaren ondoan dago. Tel.: 79 32 54.

4. Errentan hartzeko

• Etxea edo txaleta alokatuko nuke Bergara, Deba edo Elorrio aldean. Tel.: 76 91 30. Daniela.

5. Etxe konpartituak

• Deustuko ikasle pisu batean gela bat alokatzen da oso prezio onean. Tel.: 79 19 96.

• Logelak alokatzen dira erdialdean dagoen etxe batean. Tel.: 79 87 59. Tere.

GARAJEAK

7. Saldu

• Roneoko etxeetan garaje itxia salgai. Tel.: 79 18 70.

• Arimazurin garaje itxia salgai. Tel.: 79 97 18.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS • Otorora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Uribarri etorbidean garaje itxia salgai. Tel.: 79 60 96.

9. Errentan emateko

• Garajea alokatzen da San Andresen. 65 m². Tel.: 79 13 52.

LOKALAK

12. Saldu

• Martxan dagoen negozio salgai. Tel.: 79 00 00.

• Erguin kalean lokala salgai. Tel.: 79 18 70.

14. Errentan emateko

• Biltegi bezala erabiltzeko 34 m²ko lokala alokagai. Tel.: 79 20 48.

• Ura eta indarra duen lokala alokatzen da. Tel.: 79 76 95.

15. Errentan hartzeko

• Lokala alokatuko genuke lagun artean erabiltzeko. Tel.: 79 35 50.

16. Bestelakoak

• Lokal komertziala eskuz aldatzen da, beheko eta lehenengo solairua. Tel.: 79 18 00 / 77 08 97.

• Erdiko kaleko bi solairuko lokal komertziala traspasatu egiten da. Tel.: 78 18 00.

LANA

17. Eskaintzak

• Klinika laguntzailea eta gerontologian diplomaduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 34 53.

• Jangelan eta tabernetan esperientzia duen neska lan egiteko gertu. Tel.: 79 73 42.

• Etxeko lanak egin edo atarteak garbitzeko neska gertu. Tel.: 929-47 72 65.

• Arratsaldez umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu nago. Tel.: 79 54 06. Maitane.

• Arratsaldez etxeko lanak egin edo pertsonak zaintzeko gertu. Tel.: 79 07 73.

• Neska euskaldunak etxeko lanak

egin edo umeak zainduko lituzke. Tel.: 79 98 96.

• Neska gertu umeak zaintzeko. Tel.: 79 25 52.

• Esperientziadun neska kamarero lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 95 92. Rakel. Gauetan.

• Andra euskalduna umeak edo pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 07 73.

• Esperientziadun neska gertu, dena, atarte edo tabernak garbitzeko. Tel.: 79 64 46.

• Etxeko lanak egin edo umeak zainitzeko gertu. Tel.: 79 42 03. Maite.

• Esperientzia eta arduradun emakumea pertsona nagusiak zainduko lituzke. Tel.: 79 05 90.

• Arratsaldez lan egingo nuke umeak zaintzen edo etxeko lanetan. Tabernetan lan egiteko ere gertu nago. Tel.: 79 77 79.

18. Eskaerak

• AEKko euskaltegirako irakasleak behar dira. Dei egin euskaltegira. Tel.: 77 03 69.

• 35 eta 55 urte arteko emakumea behar da adineko bikotea zaintzeko. Dei egin 8etatik aurrera. Tel.: 76 51 67.

• Etxeko lanak egiteko emakumea behar da Bergaran. Tel.: 76 91 30.

19. Bestelakoak

• Lanak makinaz pasatzen ditut. Euskaraz edo gazteleraz. Tel.: 77 11 84.

• Negozioa eskuz aldatzen da. Zuzenbidea: Erdiko kalea 48.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• OHoko eskola partikularrak ematen ditut. Tel.: 79 68 18. Agurtzane.

• Kimikan lizentziaduna taldeka klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 42 97.

• Titulodun irakaslea LH eta DHBHko klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 79 94 04. Marijo.

• EGB, REM, eta ingeleseko klase partikularrak emango nituzke. Tel.: 79 55 11.

21. Eskaerak

• Matematika irakatsiko didan irakasle partikularra behar dut. Ikasgaiak: algebra, analisia, logika matematikoa eta matematika. Tel.: 79 77 59. Gaueko 10.30etatik aurrera. Fernando.

• Internet-eko klase partikularrak hartuko nituzke. Arratsaldez edo gauez. Tel.: 79 55 04.

MOTORRA

23. Saldu

• Suzuki GSX 600 F motorra salgai. Txuri-urdina eta ia berria. Tel.: 79 95 82. Andoni. Orduategia: 13.15etatik 14.15etara.

• Kawasaki Vulcan 500 motorra salgai. 8.000 km. Egoera ona. Tel.: 76 64 70.

• Egoera onean dagoen Ford Fiesta salgai. Tel.: 79 00 53. Olga.

• Fiat Regata autoa salgai. Egoera onean dago. Prezioa: 350.000 pta. Tel.: 79 25 19.

• Suzuki RF-50 motorra salgai. Tel.: 79 62 50. Ander.

• Lada Niva kotxea salgai. Tel.: 79 66 52.

• BMW R-65 motorra salgai. Txuria, eruberberri berriak. Oso egoera onean. 260.000 pta. Dei egin 79 97 60 telefonora eta utzi mezua, nik deituko dizut.

DENETARIK

26. Saldu

• Fruitadenda bateko apalak salgai. Benetako prezioa 1.500.000 pta. ko da baina nik 300.000 pta. tan saltzen ditut. Berri berriak daude. Tel.: 79 37 82.

• Fibro markako bi berogailu salgai. bakoitzak 20.000 pta. tan. Tel.: 77 07 74.

• Arraza oneko txakur kumeak salgai. Tel.: 74 28 64.

• Josteko makina mueble eta guzti salgai. Tel.: 79 22 92.

• Hammer markako snowboard tabla salgai. 1,38 m. Prezioa: 20.000 pta. Tel.: 79 33 58.

• Dynaster skiak (1,85 m.), eta Marker fijazioak salgai. Prezioa: 18.000

pta. Tel.: 79 33 58.

• Cort Luxe gitarra elektriko gehi Zoom 900-S efektu prozesatzailea: Biak, 100.000 pta. Suelto erostekotan: 55.000 pta. bakoitzak. Tel.: 79 16 36. Txus edo Toño.

• Boss Me-5 peldala 45.000 pta. Tel.: 79 95 83. Josu.

• Peavey Combo baxu anplifikatzailea salgai. Prezioa: 60.000 pta. Tel.: 79 16 36. Toño.

• Portaeski eta kotxe gainean jartzeko parrila salgai. Tel.: 79 00 99.

• Ingalaterrara bidaiak 170.000 pta. tan. Amaia. Tel.: 79 53 58.

• Cibro markako berogailua eta Fagor markako ur berogailuak salgai. Tel.: 79 81 25. Gauez.

• Soprani markako soinua daukat saltzeko. Tel.: 79 82 06.

• Oso gutxi erabilitako jangela, butaka-ohea, somierra eta koltxoia salgai. Mesanotxea eta armairua opari. Tel.: 79 22 92.

27. Erosi

• Ordenagailuendako 14 pulgadako pantaila erosiko nuke. Tel.: (945) 44

50 05.

• Bigarren eskuko seaska bat egoera onean erosiko nuke. Tel.: 77 12 36. Deitu gaueko 8.30etatik aurrera.

• Ura purifikatzeko Biozon (Fagor) aparailua etxean bazterturik baldin badaukazu, merke erosiko nuke. Dei egin gauez. Tel.: 79 17 88. Karmen.

31. Galdu

• Betaurreko graduatuak galdu nituen astelehenean, martxoaren 3an, Iturripeko iturri inguruan arratsaldeko 3.30etan. Tel.: 79 39 16.

33. Bestelakoak

• Zuk nahi duzun gutzia esango dizut Tarota irakurritz. Tel.: 907-43 13 62.

HARREMANAK

37. Denetarik


• Asteleheneetik ostiralera Leioara joan behar dut eguerdiko 3etarako eta 8etan bueltatzeko. Nirekin kotxean joateko interesaturik bazaude dei egin 79 48 83 telefonora, gastuak erdibana egingo ditugu.



LEIHO ISOLATZAILEAK



Bezeroarekin zerbitzu zuzena



Kalitatezko muntaiak



(I+D) Ikerketa eta garapena







Fabrika Zentrala

Irtenbide aproposena!


- Kalitatea
- Prezioa
- Zerbitzua
- Garantia

Kataide poligonoa, 4. pabilioia.
Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



■ Jose Luis Armendia

ARRASATE YOGA ELKARTEKO LEHENDAKARIA ETA SORTZAILEA



1 945eko ekainaren 6an jaio zen Arrasaten. Kooperatibetan lan egiten zuen baina orain 19 urte Yoga praktikatzen hasi zenean, lana utzi eta Yoga irakasle bihurtu zen. Masajista terapeutikoa eta psikoterapeuta ere bada. Arrasate Yoga elkartearen sortu zuen orain dela 17 urte eta Natura Enea orain dela 10.

1. Zein da zure horoskopoa? Geminis.

2. Sinestuna zara? Bai, baina ez erakutsi diguten bezala.

3. Animalia bihurtzekotan?

Gaudenetan hobeto.

4. Zure akats bat/gauza on bat?

Superaktibitatea/La saitzeko teknikak ezagutzen ditut.

5. Zerk lotsarazten zaitu? Pertsona ahozabalen aurrean zer esan ez jakiteak

6. Amets bat? Harreman bikain bat.

7. Zer kenduko zenuke mundutik? Injustizia.

8. Gertakizun historiko bat?

Francoren heriotza.

9. Nor miresten duzu? Nire ikaslea izan zen lehengusina bat.

10. Zeri diozu beldurra? Ez dut horretan pentsatzen.

11. Zertaz damutzen zara?

Kooperatibak lehenago ez uzteaz.

12. Negar egin duzun azken aldia?

Sentimentala naiz baina normalean ez dut negarrik egiten.

13. Zer falta zaio Arrasateri? Edukazio apur bat.

14. Eta zuri? Hainbeste konpromezu ez hartzea.

15. Lanbidez aldatzekotan? Turismo informazio bulego batean.

16. Arrasateko gustoko toki bat?

Altamira auzoa.

17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori?

Emakume bati irtetzea eskatu.

18. Zein egunkari irakurtzen duzu?

Egunkaria edo Egin.

19. Gustoko janari bat? Barazkizalea naiz baina arraina gustatzen zait.

20. Liburu on bat? *El Buda viviente*.

21. Filmerik onena/txarrena? *El príncipe de las mareas* / Monstruoenak.

22. Musika talderik onena/txarrena? Euskaldunak/Bakalaua.

23. Telebistako programarik onena/txarrena?

Erreportaiak/Toma y Daca.

24. Egin dizuten oparirik politena?

Yoga egiteko arropa.

25. Denbora librean zertan pasatzen duzu? Mendian edo pasiatzen.

26. Oporretarako toki bat? Ekialdeko herrialde exotikoak.

27. Etxeko lanik gorrotagarriena?

Jostea.

28. Gomendio bat? Lasaiago bizi.

29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Teorikoki besteei laguntzeagatik, praktikan...


30. 200 milioi irabaziz gero? Bidaiatu.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABALETAKO



MARKO-JARTZEAK ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel./Faxe: 79 01 82

M ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai, 1 • ARETXABALETAKO
Tel.: 79 08 07

"EDERTU"

Ileapaindegia • Solariuma



Martxoan eta apirilean:
Solarium eskaintza berezia!
10 sesio=6.500 pta.

San Andres auzoa • Tel.: 79 04 28 • ARRASATE

SIRIMIRI

Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

Ederto ikusten da Arrasate osoa

San Kristobal-Meatzerreka-Udala

Aritz eta lagunak arbola-petan elkartu dira. Zarugalde kaletik sartu eta Gureleku taberna parean Arrogoiko aldapa hartu dute.

Begira! Hortik ortutik gure aittajaunak barazkiak ekartzen zituen etxera. Orain hemendik gora, ezkereruntz jo behar dugu.

Senda laster amaitu zaie, eta pista bat hartu dute. Base-ri zahar bat utzi ezkerrean eta pixka bat gorago ezkerreko pista hartu dute, eta San Kristobalگو kanposantu berriraino heldu dira. Atzean San kristobalگو ermita utzi dute.

Jo Aritz! Hemendik ederto ikusten da Arrasate guztia.

Bai horixe! Hona etortzeko Monterroneko parke barrutik bide oso polita ei dago, baina orain gorantz doan porlanezko pista horretatik jo behar dugu.

Segidan Looetxebarri ikusi dute. Haraxe heldu baino pixka bat lehenxeago, ezkerreko pista bat hartu eta laster haritz bakar baten ondotik doan pista batetik, piskanaka-piskanaka, Meatzerrekaruntz jaitsi dira. Etxeberria baserriraino heldu dira segidan.

Mikel!, zuhaitz horiek gaztainondoak dira? Bai!, eta gainera haien enbor lehorretan beste arbola mota batzuk hazi dira, pinuak, gorostiak...

Bidea jarraituaz Meatzerreka auzoko elkartearen ondotik pasatu eta Kanpanzarko errepidea gurutzatu dute. Galarraga baserri gainetik segitu eta Salturri baserria baino 50 metro lehenago, Arreme baserri ondoan, eskumaruntz sartzen den pista batetik jarraitu dute.

Ander! etorri hona azkar. Beittu zelako kobazuloa dagoen hemen!. Uste dut Galarraga koba dela eta bertan egon zela Isabel II.a erregina.

Ez! Ez dut uste. Hemen inguruan dago baina ez da haxe. Beno, goazen aurrera!.

Alanbradako pasabidetik-beste aldera egin eta gero aldapan gora doaz, burdinezko erromada batekin topo egin arte. Haien eskuman harizti ederra dago; atearen albotik


igaro eta Dorako txaradira iritsi dira. Hemengo barrera zabalik edukitzen dute eta handik Udala auzoan (goiko aldera) laster batean dira. Uriarte base-rritik (Uxarte tabernatik) irte-ten den bidetik, behera hartu eta 100 metrora bidea utzi eta ezkerreko bide zaharretik jo dute. Txabola batera heldu baino lehenago eskumaruntz doan bidezidorretik, artadi batetik, hasi dira berriro jais-ten, kontzepzionisten komen-

tura heldu arte. Txabola eta ortu batzuen ondotik pasatu eta Gorostizako etxeetan "Malbinetan" dira. Patxadan, patxadan eskaileretatik behera Muzibar tabernako bidegurutzera heldu dira.

Elkarri agur esan...

Agur, eta hurrengo arte!. Hamabost egun garrenge berri-
ro ere beste bueltatxoren bat egingo dugu. Ordurarte, ba!


Patxadan Taldea



■ Horoskopoa

- **Aries** Behin baino gehiagotan esan behar zaizkizu gauzak.
- **Taurus** Orain arte moduan jarraitu: alai eta umore onez.
- **Gemini** Hainbeste buruhausterekin ilea jausiko zaizu.
- **Cancer** Gehiago jaten ez baduzu ikusi ere ez zaitugu egingo.
- **Leo** Batzuetan sarritan errepikatu behar dira gauzak.
- **Virgo** Egunero gogo txarrez jeikitzen zara. Zergatik?
- **Libra** Noizean behin etxetik irten beharko duzu.
- **Scorpio** Irribarre egin bai, baina nori, beti aldamenekoari?
- **Sagittarius** Galduta ikusten zaizu azkenaldian, zer dela eta?
- **Capricorn** Hain zara gaiztoa eta maltzurra batzuetan.
- **Aquarius** Nerbioei neurria hartu behar zaie, bestela...
- **Piscis** Lorerik politena zarela uste duzu baina kontuz!

■ Gurutzegram



JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Aparteko on den norbaitez esaten da. 8. Modu. 9. Ahoari dago-kiona. 10. Masusta ematen duen arantzadun zuhaiska. 12. Zamorako ibilgailuetan. 13. Ibilzkeko modu berezian. 15. Xakelarien jokoa. 16. Ihardun. 18. Kokatzearen ekintza eta ondorioa. 20. Bat eta bat. 21. Batzarrak egiteko gela nagusia.

Bertikalak 1. Likiniano, ekintzaile arrasatearraren izena. 2. Ebatzi. 3. Aski. 4. Abel. 5. Erbioa. 6. Israelgo hiria, Jesusen bizileku izan zen. 7. Mea eraldatu eta burdina lortzeko tokia. 11. Alez ale. 14. Sudurretik hartzen den xehetutako tabakoa. 17. Mitologia grekoan, Kadmo eta Harmoniaren alaba. 19. Sexu maskulinoa duen animalia.

17. Ino. 19. Ar.
Bertikalak: 1. Felix. 2. Erabaki. 3. Nahiko. 4. More. 5. Er. 6. Nazaret. 7. Ola. 11. Aleka. 14. Rape. Kokapen. 20. Bi. 21. Arto.
Horizontalak: 1. Fenomeno. 8. Era. 9. Oral. 10. Lahar. 12. Za. 13. Ibilera. 15. Xake. 16. Art. 18.

ikastaro gazteak

• Irrati tailerrak

1. irrati kontrola: apirilaren 1etik ekainaren 17ra astearteetan, arratsaldeko 7etatik-9.15etara.
2. irratsaioak egitea: apirilaren 2tik ekainaren 18ra asteazkenetan, arratsaldeko 7etatik 9.15etara.

Matrikula: 3.000 pta / 1.500 ikasle eta langabetuak.

• Euskal Dantzak

("Lore Gazteak" Taldearen eskutik)

15 urtetik gorakoei zuzenduta
 Martxoaren 14tik San Juanak arte otiraletan, 7etatik 8.30etara
 Matrikula: 1.000 pta

OHARRA: bikote mixtoek lehentasuna izango dute.



Izen emateak: Gazte Bulegoan 77 00 65



ARRASATEKO UDALA

Gazte Saila ■

Etkez-etxeko laguntza zerbitzua asteazkenean eztabaidagai

Etkez-etxeko laguntza zerbitzuaren inguruan sortu den auzia zeresan handia ematen ari denez, gai horren inguruan sindikatuek eta langileek duten iritziz desberdinak eza-gutzeko aukera izango da

datorren asteazkenean ATBn, gaueko 9etan.

“Gure objetibotik” izeneko eztabaida saioan honako hauek parte hartuko dute: LAB sindikatuko kide batek, Goiz Argin lanean hasi baina aurrez

Bazainen lan egin duen langile batek, ESK eta CCOOeko bi kidek eta Bazainen jarraitzen duen beste langile batek.

Telefono bidez etxetik eztabaida saioan parte hartzeko aukera izango da.

Arrasate Irratia FM 107.7

Egunero

9.00 Albisteak
9.30 Goizoro magazina
14.30 Bixau orduan

Astelehena

22.00 Caravanserai musika saioa.

Asteartea

22.00 Euskal Festa: Euskal tribuak lehen eta orain.

Asteazkena

22.00 KK2A

Osteguna

21.00 Adi Egon
22.00 Txerrendantza

Ostirala

22.00 KGB informatika saioa

Larunbata

9.30 Jailarai umeendako saioa.
10.00 Bi zoro eta zu. Magazina.
11.00 Zoroklasikoak musika klasiko saioa.

Zaldibarko zozketa Mondrasporten

Astelehenean gaueko 9.30etan Mondrasport saioan zuzen zuzenean egingo da Zaldibarko bigarren fasera pasatu diren taldeen zozketa. Horrez gain astebukaerako kirol neurketen errepeaso zabala egingo da.



■ ATBko asteko programazioa

7 Ostirala	10 Astelehena	11 Asteartea	12 Asteazkena	13 Osteguna	14 Ostirala
20/20.30/21.00 Berriak	13.30 Astebete (Errep.)	13.30 Mondrasport (Errep.)	13.30 Lotsa Barik. (Errep.)	13.30 Nire objetibotik. (Errep.)	13.30 Kukaratxa Motel (errep.)
21.30 Astebete.	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30 Berriak	19.15etan Kukaratxa Motel	20/20.30/21.00 Berriak
	21.30 Mondrasport	21.30 Lotsa Barik. Gonbidatua: Anuska Lasa.	21.00 Gure objetibotik. Mahainguru saioa. Gaia: Etkez-etxeko laguntza zerbitzua.	20/20.30/21.00 Berriak	21.30 Astebete
				21.30 Kukaratxa Motel	

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral Setatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

MARIANO ANDRADE SIGANO

TAXIA

24 orduko zerbitzua
Hotela / Aireportua / Ospitaleak...

Tel.: 79 96 87 • Tfno mobila: (907) 75 23 85
Anboto, 2-4 ezk. ARRASATE

FELIPE MADINA ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 79 13 78

ZUBIZARRETA TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 79 15 65



Mondragoeko futbolaren historian, 1916 eta 1922. urteen artean ez zen futbol zelairik egon herrian. Ordura arte, Etxaluzeko zelaian (gaur San Andres) jokatzaren zuen 1913. urtean

Club Deportivo Mondragon izenarekin sortutako futbol taldeak, erreka-ondoan. Maalako futbol zelaia egin arte, baina, lehen esan bezala, urte batzuetan ez zen futbol zelairik egon Arrasaten.

Dena dela, futbolarekiko

zaletasuna handia zen herrian eta frontoian jokatzaren zuten hainbat talde sortu zen sasoi hartan. Izenak era askotakoak ziren: Los once leones, Hijos de la noche, Los Incas, Beti Lagunak, Club Viteri, eta argazkian agertzen dena, C.D. Fortuna de Mondragon.

Urtea: 1916-22

Argazkia: Juanito Leibar.

Informazioa: Joxe Letonaren liburutik.

VE ECUADOR

bidaiak-en eskutik
Port Aventura-ra
joan zaitezke!


**KVKARATXA
MOTEL**

**Martxoak 13, FINALERDIAK
Martxoak 20, FINALAK
Irabazleak Port Aventura-ra
joango dira!**

Finalak zuzenean ATBn!



MARTXOAREN
14 ETA 15EAN BAZATOK
7 MALETAKO JOKU BAT
ERAMAN AHAL
IZANGO DUZU.



ETA GORDEZKEKO
TOKI BAT.

Martxoaren 14 eta 15ean, **4 atedun ALMERA** berriaren aurkezpenean gurekin batera zure NISSAN kontseziarioan egon zaitezten gonbidatzen zaitugu. AIRE EGOKITUA duen **4 atedun ALMERA 1.6 GX** baten zozketan parte hartuko duzu, eta erostea erabakitzen baduzu, 7 maletako joku bat oparituko dizugu.

EZ GALDU AUKERA HAU! ZURE ZAIN GAUZKAZU!

ESKAINZA BALIAGARRIA STOCKEAN DAUDEN AUTOENDAKO



**GIDATU
ETA GOZATU**

ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGORROLA KALEA, 1 - TEL. 943 / 71 20 02 - 20.500 ARRASATE

BAIMENDUTAKO ZERBITZUAK

TALLERES MOTOR KIDE

ITZIAR INDUSTRI POLIGONOA, 4 - ITZIAR / DEBA

LEGAUTO NORTE 95, S.L.

LEGAZPIKO BIDEA, Z/G - LEGAZPIA

TALLERES BLANCO

S. LORENZO AMILAGA POL., 4 - BERGARA

UDABERRI-UDAKO
MODA BERRIA!

UNITED COLORS
OF BENETTON.

Maalako Errabala, 13
ARRASATE